

Herririk Herri |3|
Berrizko irudi korporatibo berria onartu dute eguazteneko plenoan

Erreportajea |16-17|
Pilar Zubiaurre garaitarraren lanak ahanzturatik berreskuratu dituzte



Berbaz |9|
Mariam Bilbatua: "Parte hartzeko giroa bultzatu behar da ikasgelatan"

Abadetxea berriztatzeko aukera baztertu egin du Udalak

> Iurretako Udalak dio eraikina erosi eta eraberritzea garestiegia dela izango lukeen erabilgarritasunerako

> Uraren Euskal Agentziaren txostenak azaltzen duenez, beheko solairua ezingo litzateke erabili



Abadetxea Gaztetxearen egoitza izan da urte askoan. Kepa Aginako

Radarrak ez direla bereak dio Herrizaingo Sailak

Izurtza• Zeresan handia eman dute egunotan errepide bazterrean ipinitako lau kutxek eta herriaren sarrean eta irteeran radarrak iragartzen dituzten kartekek. Herrizaingo Sailak dionenez, ez dira bereak.

Jon Agirrebeitia zazpigarren, Italian, Enduro proban

KIROLA• Enduro Munduko Kopako proba batean parte hartu zuen joan zen asteburuan Jon Agirrebeitia berriztarrak. "Esperientzia ahaztezina" bizitzeaz gainera, lasterketa bikaina osatu eta zazpigarren amaitu zuen. "Egia esanda, neuk ere ez nuen itxaroten hain aurrean ibiltzerik" adierazi du.

•Elorrio
Hiri Antolamendu Plana ikusgai dago, martxo amaierara arte

•Otxandio
Aho batez onartu dituzte aurtengo aurrekontuak

Iñaki Salvadorregaz, gaur gauetz Arriolan eskainiko duen kontzertuari buruz

KULTURA• Gaur, otsailaren 12an, Elorrioko Arriolan aurkeztuko du Iñaki Salvador piano-jotzaile donostiarrek 'Te doy una canción' diskoa. Aurretik Durangoko San Agustinen eta Berrizko Kultur Etxean ere izan dugu kantautoreen abestiak jazz moldean eskaintzeko proiektu hau zuzenean erakusten. Jazz musikaz eta bere ibilbide luze eta oparoz jardun dugu berbetan.

APAINGARRI ETA INDUSTRIALA

Sagasta
Pintarak

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

- Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

ORAIN DURANGON ERE BAI

Osasuntek
KLINIKA ETA KIRURGIJA OPTALMOLUJIKOAK

Jauregui medikua | **Etxeandia medikua**

- Kardiologia
- Ginekologia eta birri-zerbitzuak
- Urtarraren, ikusmen, entzumen eta hizkuntza zuzentzerako
- Beldurketa, beldurketa, beldurketa
- Otolaringologia
- Otolaringologia orokorra

Zumalakarregi kalea, 18 (Solairu artekoa) Durango • Tel.: 94 655 09

HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Abadetxea erosi eta berriztatzea behin betiko alboratu du Udalak

Udalak eskatutako azterketetatik ondorioztatu dute eraikinaren "erabilgarritasuna" urria litzatekeela



Hain "enblematikoa" den eraikinean Gobernuak zeuzkan asmoak ezingo dituztelako bete, "pena" adierazi du alkateak. Kepa

ñaki Totorikaguena alkate jeltzaleak jakin eragin duenez, joan zen barikuko udalbatzarrean aho batez erabaki zuten "Abadetxea erosi eta berriztatzeke asmoa behin betiko alboratzea". Eraikina etorkizunean ez dutelako erabilera aldetik "funtzional" ikusten hartu dutela erabakia dio alkateak.

Udalak Abadetxea eraikinarantzatu zuen asmoa burutu ahal izateko prozesuan, besteak beste, Uren Euskadiko Agentziara jo zuen Udalak, Totorikaguenak azpima-

Eraikina berriztatzeke kostua "handiegia" eta eraikinaren "funtzionaltasuna" urria litzatekeela dio alkateak

rratu duenez (eraikina errekarren eragin-eremuaren barruan dagoelako). Uren agentziak egindako txostenean, "eraikinaren beheko solairua ezingo litzatekeela erabili" jasotzen duela eta berrikuntza eraikinaren egitura eta azalera aldatu barik egin beharko litzatekeela azaldu du alkateak.

Horretara, eraikina berriztatzekeotan, "beheko solairua eta goiko solairua erabili ezinezko espazioak lirateke". Hirurehun metro karratu inguru izango ei lirateke

erabilgarriak, eta eraberritzeke izango lukeen kostua eta eraikinaren funtzionaltasun ezak balantzaren alde batera indar handia egin du: onura txikia lortzeke esfortzu handiegia litzatekeela dio Totorikaguenak, eta hori dela Udalaren asmo historikoa izan dena bertan behera uzteke arrazoia.

"Penaz", esan du Totorikaguenak, hain "enblematikoa" den eraikina jaustekotan dagoela adierazteke espediente osatzeari ekingo diotela orain. ■ I.E.

Bidegorriko saneamendua berriztatzen

Iurretako Udalak saneamendua gaz eta Maiztegi herri eskolako itxiduragaz lotura daukaten bi proiektu aurkeztu ditu Espainiako Gobernuak 2010ean Udalen garatzeko proiektuetarako eskainiko duen laguntzarako. Tokiko inbertsioetarako diru-laguntzaren atal nagusia (400.500 eurokoa) bidegorriaren saneamendu-sarera bideratuko dela jakinarazi du Udalak, eta 3.500 euro inguru Maiztegi herri eskolaren itxidura egokitzeko.

Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondoaren 400.500 euroko diru-laguntza atala saneamendu lanetara

Saneamenduko hainbat tutu eta hodi aldatuko dituzte saneamendu-lanen lehenengo fase honetan

Bidegorrian saneamendu-sarea egiteke proiektuaren lehenengo faseke lanak aurkeztu ditu Iurretako Udalak, Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Fondoaren diru-laguntza jaso ahal izateke. Obra horren garrantzia eta konplexutasuna kontuan hartuta, bidegorriaren saneamendu-lanak hainbat faseke burutuko dituztela aurreratu du Iurretako Udalak. Estatu-ko diru-laguntzagaz, saneamenduko hainbat tutu eta hodi aldatzea finantzatu du.

Horregaz batera, N-634 errepidearen iparraldean egingo den 1.200 etxebizitzarentzako hiritartzea ere egingo dutela jakinarazi du Udalak. Lanen fase horretan Arandia eta Mallabiena arteke saneamendu-sarea ere berriztatuko dute. ■ I.E.

DI MAÑARIA

770 euro batu zituzten zapatuan santaeskean

Goizean hasi eta gauera arte jardun zuten aldameneko argazkiko lagunek Santa Ageda koplak kantatu eta borondatearen eskean: 770 euro batu zituzten etxeriketxe, eta Nikaraguako Diriamba herrian beharrean diharduen Activos por

Nikaraguan kaleko ume, gazte zein helduekin egiten duten lanera bideratuko dute zapatuan bildutako dirua

un Mundo Solidario elkartera bialduko dituzte, kalean bizi direnak laguntzeko egiten duten lanean kolaboratzeko. Besteak beste, garraioa, jangela, orientazio psikologikoa eta ume zein helduei zuzenduriko hainbat tailer antolatzea bideratuko du aipatutako GKEak lortutako dirua.

Zapatuan goizetik gauera arte kantuan jardun zutenei eta aipatutako proiektuak laguntzeko borondatea adierazi dutenei ere eskerrak eman dizkiete. ■ I.E.



Santa Ageda kantuan eta etxez etxe borondatea batzen jardun zuten lagunok.



IZURTZA

Radarrak nork ipini ote dituen galdezka dabilta

Herrizaingo Sailak dioenez, radarrak ez ditu Jaurlaritzak ipini. Udalak ere ez direla bereak dio

Radarren ezarpenak zeresan handia eman du herrian. Durango eta Gasteiz lotzen dituen N-623 errepidean radarrak diruditen lau kutxa agertu dira. Herriko sarrera eta irteeran eskegitako kartelek radarrak daudela iragartzen dute. "Errespetatu Izurtzako herritarrak. Zaindu zure abiadura" jartzen du Izurtzako sarre- eta irteeran jarritako kartelak.

Jaurlaritzak radarrak martxoan martxan ipiniko zituztela zioen; orain, berriz, ez direla bereak dio

Komunikabideetan radar hauen inguruko informazioa kaleratu dute, Herrizaingo Sailak martxoan martxan jarriko dituela azalduz. Denen harridurarako, Herrizaingo Sailak radarrak ez direla Jaurlaritzarenak argitu du orain, eta errepidearen arduradun den Aldundiari egoeraren berri eman diote. Herrizaingo Sailetik ez dute

datu gehiago eman. Hala ere, gezurretako radarrak ez dute kendu.

Udalaren jarrera

Lorea Muñoz alkatearen berbatan, "Udalak ez daki ezer gai honi buruz, eta ez ditu radarrak ipini". Alkateak dioenez, Udalak sarritan eskatu dio Herrizaingo Sailari errepide honetan ibilgailuen abiadura moteltzeko neurriak hartzeko. "Radarrak nork ipini dituen ez jakin arren, egunotan ibilgailuak askoz motelago joan direla nabaritu dugu. Beraz, benetako radarrak jarriz gero, baliagarriak izan daitezkeelakoan gaude. Gai hau sakonago aztertu beharko litzateke".

Durungaldea Maite Dugulako plataformak Izurtzako trafiko arazoa konpontzeko Aldundiak herritarrekiko daukan "kontsiderazio falta" salatu du. Ekimen honek zirkulazio arazoak "ekintza soil, arrunt eta irudimentsuekin gainditu ahal direla" erakutsi duela esanez, Izurtzarako saihebidetara eskatu diote Foru Aldundiari. ■ J.G.



Auto gidariek Izurtzan radarrak ipini dituztela ondorioztatu dute kartelak ikusita.

ZALDIBAR

Diru-laguntza erabilita berriztatu egingo dute eskola ingurua

Eskakizuna onartuz gero, 316.862,92 euroko diru-laguntza jasoko du Zaldibarko Udalak

Enplegu eta toki-jasangarritasunarako estatuko fondoko diru-laguntza eskakizuna egitea onartu dute aldeko sei boto eta lau abstentzio-gaz udalbatzarrak egindako azkeneko osoko bilkuran. Aldeko botoak EAJren lau, PSEren bat eta independenteen boto bat izan dira; abstentzioak, berriz, EAko hiru eta PSEren bat. Abstenituta-koek azaldu dutenez, denborarik

niko dute martxan. Proiektu horren barruan kaleen saneamendua egingo dute, uren kanalizazioa berriztatuko dute, argiztapena aldatuko dute lanpara berriak ipiniz, eta telekomunikazioen kablea aldatuko dute.

Tonbola solidarioa Zaldibarren

Barikurako tonbola antolatu du astero-astero parrokiaren batzen den emakume taldeak. Emakume taldeak jositako mahai-zapiak, etxean egindako mermeladak eta beste hainbat sari, 1.600 izango dira guztira. Tonbola 19:00etan hasita zabalik izango da. Batutako dirua Kolonbia, Peru eta Boli Kostan beharrezko diru-laguntza bideratuko dute. Iazko tonbolan, esaterako, 9.000 euro batu zituzten.

Udalbatzarraren azkeneko plenoan aldeko sei boto eta kontrako laugar onartu dute Planerako eskakizuna egitea

izan ez dutelako hartu dute erabaki hori. Izan ere, estatuak tokiko inbertsioetarako bideratutako laguntzak jasotzeko eskaera otsailaren 4an egin behar zen. Eskakizuna onartuz gero, 316.862,92 euroko diru-laguntza jasoko du Udalak.

Diru horrekin Eskola inguruko zonaldea, hau da, bizitegi-sektorea 1, berriztatze proiektua ipi-

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA OTSAILAK 25 osteguna 17:30

Enpresagintza Fakultatea

IRUN OTSAILAK 20 larunbata 10:00-13:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA OTSAILAK 18 osteguna 18:00

ARETO NAGUSIAN

etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

BERRIZ

Berrizko irudi korporatiboa aho batez onartu dute

'B' distortsionatu bat irudikatzen ei du eta baita Berrizen izaera zabala ere



Udalbatzarra, irudi korporatibo berriagaz, eguazteneko plenoan.

Berrizko Udaletzeko irudi korporatiboa aho batez onartu dute aste honetan izandako ohiko batzarrean; zehatzago, irudi korporatiboaren erabilera zehazten duen eskuliburua argitaratzea onartu dute. Irudi korporatiboa 'B' distortsionatu bat da, Jabier Azpitarte Berrizko alkateak adierazi duenez, Berriz irudikatzen du baina baita Berrizen izaera zabala ere, eta "izan dena, garena

Irudiak oinarri berdea dauka. Berrizko ezaugarria delako aukeratu dute kolore hori

Azpitarte: "Anagrama ikustean bakoitzari sentsazio bat sortzen dio. Ez da irudi itxi bat; iradokitzailea da"

eta izango garena".

Gainera, Berriz, 'B' forma horrek islatzen duen positibotasunagaz lotu gura izan dute. Landare baten itxura izan dezakeela ere aipatu du alkateak. Irudiak oinarri berdea dauka, kolore hori Berrizko ezaugarria dela esan du Azpitartek: "Berdez inguratuta gaudelako eta Udalak ingurugiroa-

rekiko daukan sentsibilitatea ere adierazi gura izan dugulako irudi korporatiboan". 'B' distortsionatuak, sentsazio positiboa edo landare baten itxura ei dauka: "Bakoitzari era bateko sentimendua sortuko dio, ez da irudi itxi bat; iradoki egiten du". Hori ere azpimarratu gura dutela adierazi du alkateak.

Irudi korporatiboa berehala Berrizko Udalarekin identifikatzea nahi dutela adierazi du Jabier Azpitarte Berrizko alkateak. "Udaleko edozein ekintza, aktibitate edo dokumentu".

Hile baten inguruan irudi korporatiboa gutunazaletan eta Udaleko dokumentuetan ikusiko dugu; paperean erabiliko da lehenengo, baina apurka-apurka Polikiroldegi, Kultur Etxe eta Udalaren ibilgailu guztietan jarriko dute.

Erabilerari dagokionez, oinarriko ezaugarri batzuk errespetatu behar dira; kolorea, tamaina, forma, esaterako. Irudi korporatiboa anagramak eta logoak osatzen dute. Bi elementuak banatuta edo batera erabili daitezke, baina eskuliburuan azaltzen diren ezaugarriak errespetatuz. ■ G.A.

Irudi korporatiboa ikusteagaz batera, jendeak Udalaren ekintza, dokumentu edo guneekin lotzea gura dute

Irati Planak, batez ere, kirol eta gazteriaren arloa landuko du

Berrizen euskararen erabilera %27koa da; kirol arloan, berriz, %5ekoa

Irati Plan Estrategikoa, 2010-2012rako euskaraz plan estrategikoa da. Euskararen erabilera bultzatzeko bigarren plan hori aho batez onartu zuten eguazteneko ohiko bilkuran.

Iaz kale neurketa egin zuten, eta ateratako datuen arabera, Berrizen euskararen erabilera orokorrean %27koa da. Karmen Amezuza ezker abertzaleko ordezkariak adierazi duenez, "badirudi erabilera zer edo zer igo dela, baina teorikoki herri euskalduna izateko datu hori baxua dela pentsatzen dugu, eta bultzatzeko neurriak hartu ditugu plan honetan".

Batez ere, hutsune nabarmenenak gazteria eta kirolaren esparruan aurkitu daitezke. Izan ere, datuen arabera euskararen erabilera %5ekoa da kirol jardueratan; "badirudi kirola eta euskara ez daudela oso lotuta, eta eskola eta institutuan ere erabilera baxua da", dio Amezuza. Beraz, arlo hauetara bideratuko dituzte, batez ere, euskara bultzatzeko ekintzak.

Irati Plan Estrategikoa, batez ere euskararen erabilera bultzatzeko plana, aho batez onartu zuten plenoan

Kirola egitera bultzatzen duen publizitatea euskaraz egitea da hartu duten neurrietako bat

Euskara sustatzeko Irati Planak hamar esparru hartzen ditu kontutan euskara bultzatzerako orduan

Dagoeneko kirolaren esparruan lanean hasi dira, Koikili Athleticeko jokalariaiaz, euskarazko deskribapenak egiten ikasteko ikastaroa antolatu zuten. Kirolaren esparru osoa izango dute kontutan, nagusia bai, baina baita umeena ere. Helburuak markatu eta ekintza zehatzak antolatuko dituzte, beste herri batzuekin ere kontaktuan daude euskararen erabilera bultzatzeko zer egin daitekeen adosteko.

Hartutako neurrien artean, kartelak, errotuluak -hau da, kirolaren arloko hizkuntza paisaiak euskaratu dute dagoeneko. Bestalde, futboleko euskaraz dakiten entrenatzaileak egotea bultzatuko dute, eta kirola egitera bultzatzen duen publizitatea euskaraz egitea da hartutako neurrietako bat. Lantzen dabiltzan ekintzak ere ildo hori jarraituko dute.

Kirolaz gainera, beste bederatz esparrutan bultzatuko dute euskara erabiltzea; lan mundua, administrazioa, aisialdian... ■ G.A.

ABADIÑO

"Errespetua" eskatu du EAJren Uri Buru Batzarrak

Joan zen "barikuan Batzokian jasotako eraso salatu eta errespetua eskatu" dute jeltzaleek

San Blas jaietan joan zen barikuan Batzokiko kristalak apurtu zituztenei "gure ideia politikoak errespetatu ditzatela" eskatu die Abadiñoako Uri Buru Batzarrak, "eta gainerako ideia guztiak ere bai".

Asteon jeltzaleek salatu duteenez, joan zen bariku gauean 01:00a aldean, jeltzaleen kontrako oihuak zabaldu eta gero Batzokiko kristalak apurtzeari ekin zion gazte talde batek.

Erasoaren unean Batzokian zegoen arduradunak Ertzaintzari deitu ziola azaldu du, zabaldu-tako idatzian, EAJren Uri Buru Batzarrak, "ahalik eta arinen gazteak atxilotu zituzten".

San Blas jaietako barikuan, 01:00a aldean, Batzokiko kristalak apurtu zizkietela salatu du Uri Buru Batzarrak

Hau ez dela Batzokia erasotu duten lehenengo gogoratu du Uri Buru Batzarrak; iazko San Blas jaietan euren egoitzaren gainean pintura jaurti zutela gogora ekarri dute.

Joan zen barikuko gauean gertaeren aurrean bere "gaitzespena" adierazi du Uri Buru Batzarrak. Batzokian biltzen diren ideiak legez, "edozein ideia politikorekiko errespetua" eskatu dute jeltzaleek komunikabideetara helarazi duen oharrean. ■ I.E.

Iazko San Blas jaietan ere Batzokiaren gainean pintura jaurti zutela gogorarazi dute

Joan zen bariku gauean 01:00a aldean gertatu zela eraso eman dute asteon jeltzaleek jakitera

MOMOTXO TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO


"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfn. 94 681 43 85

AZKARGI GARBIKETAK
Bulego eta Industria mantentimendua
Obra osteko garbiketak
Kristalizatuak eta abar
Goietan, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 94 682 09 91

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

Heldu da garaia, zatoz gu ezagutzera

Zuen beharretara moldatuko gara.



María Bitarteko eta Lourdesko Ama ikastetxeak

- Bertako euskara eta euskal kulturaren bultzatzaile.
- Haurtzaindegia "zeuen beharretara" goizeko 7:30etik arratsaldeko 19:30era. Eskolako ume guztiarentzako zabalik.
- Uztail osoan zabalik.
- Dramatizazioa eta psikomotrizitatea.
- Ingelesa 3 urtetik aurrera.
- Herriaren erdian kokatuta.
- Baliabide didaktiko guztiak eta hezkuntza berriztapena.
- Elkarbizitza baserrian eta barnetegietan.
- Zelai zabalak, naturak inguratuta ikasteko eta gozatzeko.
- Jantokia, bertako irakasleekin, 0 urtetik aurrera.
- Lan taldea gaztea, esperientziaduna, inplikaturik eta etengabeko heziketan dagoena.
- Ikasleen jarraipen eta orientabide zerbitzua familiekin harreman estuan.
- Liburutegia: ikasketak leku eta giroa irakasleek zuzendua, DBHrako 16:00 - 18:00 eta LHrako 17:00 - 18:00.
- Ingurugiroko hezkuntza, energia garbien bultzatzailea eskola-ortuarekin.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: karatea, gimnasia erritmikoa, yoga, gitarra...
- Eskolako aldizkaria.
- Baloreen hezkuntza.
- Uztailan Udako Eskola.

Proiektua martxan



María Bitarteko Ikastetxea
 Urrak, 2 • tel. 94 623 16 26
 mariabitartekoikastetxea@hotmail.com

Lourdesko Ama Ikastetxea
 Lourdes etorbidea, 8 • tel. 94 682 00 56 fax. 94 623 16 95
 lourdeskoama@hotmail.com

www.lourdesmeriabitarteko.com

OTSAILAREN 1tik 12ra MATRIKULA ZABALIK

DURANGO



“Enpresako arduradunek ez digute telefonoa hartzen”, salatu dute. Judit Fernandez

Leherketak berriz desorduetan egiten hasi direla salatu dute

“Gauerdian eta beranduago izaten dira”, diote Gasteiz Bideko bizilagunek

Tabira auzoko AHTko tramuan tunela egiteko zulaketak egiten hasi ziren irailan. Sasoi hartan, Gasteiz Bideko 20 eta 22. zenbakian bizi diren familia biak akordio batera heldu ziren tramu hori egiteko ardura daukan enpresagaz; besteak beste, leherketak ordu jakin batzuetan izan zitezten adostu zuten: 10:00etan eta 21:00etan. Akordio hori urtea amaitu artekoa zen. 2010a hasi zenean akordioa berritu gura izan zuten, baina, “oraingoz, hainbat bider saiatu arren, ezin izan dugu eurekin hartu-emanetan ipini”, dio Alex Barrentxea bizilagunak.

Ondorioz, urtea hasi denetik egoera “asko okertu” dela salatu du: “Joan zen asteo asteazkenean goizaldeko 01:00ean leher-

keta bat izan zen. Eta oraintsu gauerdian inguruan beste bi leherketa izan dira”. Zartadek etxea “dardarazi” egiten dute, eta iazko kargekin alderatuta “batzuk askoz bortitzagoak dira”. Baina zarata ez da hor amaitzen: “Ondoren, hon-

“Urtea amaitu zenetik berriro hasi dira leherketak gauerdian eta beranduago egiten”

dakinak erretiratzeko hasten dira, goitik behera jaurtiz. Gero kamioiak hasten dira beharrez, horrek eragiten duen zaratagaz”.

Tunela egiteko ardura daukan enpresatik inork telefonirik hartzen ez dienez, Udaletxeko bule-

go teknikora sarritan jo dute. Udalak “obrako arduradunagaz batzeko konpromisoa hartu” ei du: “Udaleko langileekin ez daukagu kexarik. Ondo atenditzen gaituzte eta badakigu sarritan ahalegin du direla eurekin berba egiten, baina, sententzia daukat, ez dietela kasurik egiten”, dio Barrenetxeak.

Eztandek eragindako kalteak ez dira zaratekin amaitzen, Agustín Duran bizilagunaren esanetan. Eztandaren ondorioz airean irten dako harri batzuk teilatura heltzen ei dira eta goitik datorren erreka-txoaren emaria ere moztzen ei dute: “Ondorioz ura gure lur sailletara filtratzen da batzutan”. Ez Duranek ez Barrenetxeak ez deritzote irtenbide egokia beste non edo non bizi-tzen jartzeari. ■ J.D.

Nerea Urien Uri Buru Batzarreko presidente

Martitzenean Batzokian egindako bozketan botoen gehiengoa jaso zuen Urienek

Pilar Ardanza garraio eta hirigin-tza diputatuak Nerea Urieni pasatu dio Durangoko Uri Buru Batzarreko presidente izateko lekukoa. Ardanzaren kargu berria bateraezina denez Durangoko EAJren

Nerea Urien Soziologian lizentziatua da, eta Leioako zaharren egoitzako zuzendaria

buruzagitzagaz hiru urteren ondoren kargua utzi behar izan du. Martitzenean batzokian egindako batzarrean botoen gehiengoa jaso zuen herriko euskara eta kultura zinegotzi izandako Urienek. Soziologian lizentziatua eta EHUko irakaslea izandakoa da. Gaur egun, Leioako zaharren egoitzako zuzendaria da. Gainera, orain dela urtebete ekin zion batzordeko lanari.

Juntakide berriak ere izendatu dituzte: Rafael Zamalloa, Alain Salterain eta Santiago Domingo dira aukeratuak. ■ J.G.

Ur hornidura hobetzeko lanak burutuko dituzte

Eguzkitzagoien ur-biltegi berria egingo dute eta 5.000 metroko kubikoko ahalmena izango du

Durangoko goi-aldeetako etxebizitzetarako hornikuntza-sare berria egiteko lanak burutuko ditu Aldundiak, 2,8 milioi euroko aurrekontuagaz. Horretarako, Eguzkitzagoien ur biltegi berria egingo dute. Urtebeteko epea daukate lanak amaitzeko.

Obrek Durangoko herrigunetarako hornikuntza indartzeaz gainera, herriko osoan presio-maila egokia lortzea bermatuko du eta udalerriko erregulazio gaitasuna handituko du. Obren bitartez, Durangoko hornikuntza orokorra hobetu gura dute; gaur egun 4.000 m³-ko gaitasuna daukan Garaizarko biltegien bitartez bakarrik hornitzen da udalerria.

Ura Eguzkitzagoien eratea eragingo duen Tabirako ponpaketa lotunea Mañaria-Ermua zatian egingo dute: Garaizar eta Torreko ponpaketa estazioeraino (Izurtza) doan zatian.

Proiektuko ponpaketa-estazioan bi ponpa jarriko dituzte, ura hartunetik biltegi berrira bultzatzeaz arduratuko direnak.

Proiektuan jaso dutenez, Tabirako ponpaketa-estazioetik Eguzkitzagoienako biltegi bialduko dute ura. Egin behar den zanga elektrizitate-hartunea Eguzkitzagoienako biltegiaraino bidaltzeko beharrezko kanalizazioa sartzeko erabiliko dute, baita ponpaketa eta biltegia lotuko dituen zuntz optikoa sartzeko ere, ponpaketa automatikoki egin ahal izateko.

Proiektuko biltegiak banango bi ganbera izango ditu, bakoitza 2.500 m³-koa.

Amaitzeko, Durangotik Santikurutza igotzen duen bidetik biltegiaraino sarbidea diseinatu dute. Biltegi urbanizazio-lanak bat egingo dute alde horretako natur inguruneagaz, obrek eragindako eremuan berriro landareak sartuko dira-eta. ■ J.D.

2,8 milioi euro erabiliko dituzte ur hornidura hobetuko duen proiektua gauzatzeko

MALLABIA

Mikel Zarate kalean igogailua ipiniko dute

Mikel Zarate kaleko 10 zenbakitik 14ra etxeetako bizilagunak igogailuak jartzeko pausoak ematen dabil Udala. Igogailua jarri ahal izateko egin beharrek lanei dagoeneko ekin die Udalak, beraz, obrak amaitzeaz batera izango dute zerbitzu berria martxan.

Inguruko parkeko zorua-aren egoera txarraren aurrean obra hau aprobetxatu gura izan dute konponketak egiteko. Izan ere, parkeko zorua-aren egoera ikusita, neurriak hartzea “beharrezko” ikusi du Udalak.

Mallabiko herritarren batek edo igogailua ipiniko duen bizilagunen batek lanen nondik norakoak zelan aurrekusi dituzten zehatzago ezagutzeko interesa badauka proiektua Udaleko bulegoetan dauka ikusgai ohiko ordutegian; Arteiz kaleko 4 zenbakian. ■ J.G.

ATXONDO

Posta bulego berriko lanak amaitzeaz daude

Laster posta bulegoaren lokal berriko giltzak emango dizkiotela jakin eragin du David Cobos Atxondoko alkateak. Konponketak lanak egiten dabilte plazan bertan dagoen lokalean, eta Correosek Aste Santurako atonduta izango duela dauka aurreikusita Udalak.

Liburutegia eta udal artxi-boaren moduan, Osakidetzako kontsultategiko lanak direla-eta aldatuko dute lekuz posta bulegoa. Kontsultategia handitzeko premia dagoela gogoratu du Cobosek: “Pediatria, erizaina eta medikua badaude, ez dago lekunik larrialdi kasuetarako”. ■ A. U.

Lokal berriko lanak ia amaituta daudela eta Aste Santu aurretik zabalduko dutela azaldu du alkateak

35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Piruairekin egin daitekeen paperik onena

Eta azkenik paperezko zakurik ederrenak



ELORRIO

Martxoaren 31ra arte ikusgai dago herria antolatuko duen plana

Zapatuan, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia azaldu zuten Elorrion, Arriola beteta zegoela

Zapatuan, Arriola bete-beteta, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia azaldu zuten Elorrion. Datozen zortzi urteetarako plana Iturri kultur etxean ipini dute erakusgai. Zortzi asteko epa izango dute herritarrek plana ikusi eta haren inguruko iritziak emateko. Niko Moreno Elorrioko alkatea, Maria Jose Olabarria udal-arkitektoa eta Juan Landa arkitekto juridikoa izan ziren zapatuan

Herritar batzuek euren kezka azaldu zuten San Antongo industriagunearen gainean

Arriola antzokian planari buruz egindako azalpenean.

Juan Ramon Lombera arkitektoak gidatu zuen planaren erredakzio taldea eta hauek dira aurkeztutako proposamenetako batzuk: San Antongo lurretan zazpi hektarea industriarako klasifikatzea; Lince alboko lurretan sektORIZATU bako lur zatia ipintzea; Elgetako jaitsieran eta San Josen bideak hobetzea; Leiz-Miota auzoan lurzati bat nekazaritzako lur moduan klasifikatzea eta Ugarteko lurrak eta San Eloy alboko lurrak urbanizagarriak ez izatea, aurreko planean ez bezala. Beste proposamen batek Montorran, Goietan, San Pion eta gasolindegia alboan hutsu-



Hiri Antolamendurako Plan Nagusia jendaurrean aurkeztu zuten zapatuan. A.U.

ne urbanoak betetzeko etxebizitzak eraikitzea jaso du. San Antoneko bloke bien artean ere etxebizitza gehiago egitea aurreikusi dute. Etxebizitza horien dentsitatea arau subsidiarioen zirraborroan baino txikiagoa izango da.

Planaren aurkezpenaren ondoren, hainbat herritarrek San Antoneko lurretan egitekotan diren industriaguneari buruzko kezka agertu zuten eta nekazaritza lurrak babesteko eskariak ere

Proposamenen artean dago, besteak beste, Lince alboko lurretan sektORIZATU bako lurzati bat ipintzea

egon ziren. Niko Moreno alkatearen esanetan, "dokumentuak bere ibilbidea hasi baino ez du egin". Oraindik, hobekuntzak sartzeko tartea badagoela azaldu zuten; esaterako, hiri debekatuaren mapako lanak gehitu behar zaizkio planari eta babes ofizialeko etxeen kopurua zehaztu behar dute.

Udal-arkitektoak herritarren dudak argituko ditu eguenetan. Iturriko erakusketa 09:00etatik 21:00etara dago zabalik. ■A.U./J.D.

DURANGALDEA

Inauteri giroan gozatzeko hainbat aukera daukagu inguruan

Kraskitinek 'Surrandien eta Hartzaren Konpartsa' kalera aterako du



Kraskitinekoek Merkatu plazan batzeko deia egin dute.

Inauteriak atjoka dauzkagu eskualdean. Karnabaletako jantziak prestatu eta kalera irtetzeko hainbat proposamen dauzkagu gure inguruetako herrietan.

Kraskitin taldeak *Surrandi eta Hartzaren konpartsa* gaz 18:15ean Merkatu plazan elkartzeko hitzordua ipini du, handik irtenda Durangoko kaleak musika eta dan-

tzagaz girotzeko asmoz. Amaiera 20:00etan Andra Mariko elizpean izango da. Martitzenean, ume eta gazteentzako ekitaldiak antolatuko dituzte. Adinekoen egoitzan IV.Tostada Lehiaketa eta Duo Menta taldeagaz dantzadia izango dituzte.

Iurretan, inauteri egunez 10:00etan *Munduko dantzak* jaial-

dia antolatuko dute eskoletan. Mikel Deuna kultur taldeak Luhartz taldearen erromeria antolatuko du Olaburu frontoian.

Berrizen, bihar, inauterietako herri-afaria prestatuko dute.

Elorrion, ikastetxeen mozerro desfilea eta txikientzako antzerkia izango dituzte. Haur parkea egun osoan egongo da zabalik. Arratsaldean Kresala taldearen erromeriak alaituko du; txokolate-jana izango da gero. Otsailaren 21ean Biziatloia ipiniko dute martxan, eta 28an Mountainbike herri-martxa.

Mallabian, bihar, umeentzako egitaraua gertu izango dute eskolan. Arratsaldean erromeria eta mozerro lehiaketan parte hartzeko aukera esakiniko dute.

Berrizen, bihar, inauterietako herri-afaria prestatuko dute. Mozorrotuta joatea derrigorrezkoa da

Abizenak euskal grafiaz idazteko aukera UEMAgaz

Atxondo, Izurtza, Mallabia eta Otxandion abizenak euskal grafiagaz ipintzeko modua dago

UEMAk bultzatuta, *Guk abizena, zuk?* kanpaina ipini da martxan Atxondon, Izurtzan, Mallabian eta Otxandion, euskal abizenak modu ofizialean eta edonon euskaraz izan gura dituztenentzat.

Modu horretan, Arteche, Aguirre, Aurrecochea, Echenique edo Echevarria aldatu eta Arretxe, Agirre, Aurrekoetxea, Etxenike edo Etxebarria bihurtzeko aukera izango dute interesatuek.

Ekimenaren helburua normalizazioa baino ez dela azaldu dute kanpainaren sustatzaileek

UEMAko zuzendaritza batzordearen ustez, "hizkuntza bateko abizenak beste hizkuntza batean idaztea ez da normala". Ekimenaren helburua normalizazioa baino ez dela gaineratu dute kanpainaren sustatzaileek, eta

gogoratu dute hizkuntza normalizatueta ez dela horrelakorik gertatzen: "Ingelesek Shakespeare idazten dute, eta ez Xexpir, eta espainolek Cervantes eta ez Zerbantes. Nor gara euskaldunak horiek berridazten hasteko? Aguirre edo Echevarria abizenak badira, zergatik ez Agirre eta Etxebarria idatzi, euskaraz?"

Herriotan, etxe guztietara helarazi dute abizenak euskalduntzeko kanpaina. Horrez gainera, toki esanguratsuetan (udal-letxeetan, kultur etxeetan...) postalak ipini dituzte abizenak euskalduntzeko jarraibideekin.

Abizena euskal grafiara moldatzeko erregistro zibilean edo bake epaitegian emango dioten eskaera orria datu pertsonalekin bete behar da, eta honako agiriak entregatu behar dira: NANaren fotokopia, jaiotza ziurtagiria, errolda agiria, familia liburua eta 16 urtetik gorako seme-alabak izanez gero, euren NANA. ■J.D.

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILLEN - 2009
Estimada en la elaboración de Merillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
preziosinatural

GARAI

Txarto aparkatzeagatik abisuak ematen hasi dira

Udal beharginak astelehenean hasi ziren autoetan hutsegiteen oharrak uzten



Autobus geltokian utzitako kotxeetan oharrak ipini dituzte asteon.

Aparkatzean hutsegite ugari egiten direla-eta, kanpaina berria ipini du martxan Udalak. Aparkatzeko arauak apurzen dituzten kotxeetan abisuak uzten hasi dira Udaleko beharginak. Egoera aldatu ezik, isunak jartzera pasatuko dira.

Herrigunean azkeneko urtean egindako lanen barruan hainbat aparkaleku egokitu dituzte, baina erabiltzaile batzuk ohitu barik dagozelako-edo, ez da arraroa autoak espaloi gainean, autobus

geltokian edo errepidean bertan txarto aparkatuta ikustea.

Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, hutsa egiten dutenak informatuko dituzte oraingoan, "hurrengo batean isuna jaso dezaketela" abisatzeko. Jenteak ohitura egokiak hartzea gura dute, "gero sorpresarik egon ez dadin". Ez dute argitu noiz hasiko diren isunak ipintzen.

Bestalde, Gerediagarako zirkulazioa semoforo erregulatuta dago, A8ko lanen eraginez.

Ez da arraroa autoak espaloi gainean, autobus geltokian edo errepidean bertan txarto aparkatuta ikustea

Hutsa egiten dutenak informatuko dituzte oraingoan, "hurrengo batean isuna jaso dezaketela" jakin eragiteko

OTXANDIO

Diru-laguntzek baldintzatu dituzte inbertsio nagusiak

Asteon aho batez onartu ditu Udalak 2010erako aurrekontuak; iaz baino 100.000 euro gutxiago

Aurrekontuak aho batez onartu ditu Udalak aste honetan egindako ez ohiko batzarrean. Guztira, 1,876 milioi euro ditu Udalak, iaz baino 100.000 euro gutxiago.

Inbertsioak

Aritz Otxandiano alkateak dioenez, "kultura eta kirol arloan ez dugu diru-atalik murriztu". Inbertsioetako ataleko gastua jaitzi dugu".

Andikona plaza konpontzeko 400.000 euro aurreikusi ditu Udalak 2010erako inbertsioen artean

Inbertsio nagusiak diru-laguntzen menpe daudela gaineratu du.

Andikona plaza konpontzeko 400.000 euroko diru-atala aurreikusi dute. Alde Zaharrera sartu eta irtetzeko pibote automatikoak jartzeko (ONA txartelagaz) 50.000 euro daukate. Argiteria sarea hobetzeko 50.000 gorde dituzte eta eskolako galdaran biomasa sistema jartzeko 100.000 euro. Energia berriztagarrien arloan gehiago sakondu gura du Udalak. Basoetako biomasa zelan aprobetxatu aztertzeko ikerketa egingo dute (5.000 euro). Behialde baserriko 800 behien bekorotzagaz biogasa edo konposta sortzeko egon daitezkeen aukerak ere aztertuko dituzte (15.000). ■ J.G.

IURRETA

Eguen Zuri abesten irten zuten Juan Orobiogoitiako gaztetxoek

Ohiturari eutsiz, Eguen Zuri abesten irten zuten azto Durangaldeko hainbat herritan. Esaterako, Iurretan, Juan Orobiogoitia ikastetxeke 4. mailako gazteak baserri baserri ibili ziren kantu kantari. Garaizarreko futbol-zelai inguruko baserrietara eta Amatza auzora joatea zuten helburu, baina elurraren eraginez ibilbidea laburtu behar izan zuten. Hala ere, goiza kanpoan eman zuten baserrietan giroa alaitzen. Batutako dirua ikasbidaia ordaintzeko erabiliko dute gaztetxoek.



DURANGO

Gaztañazatorre aukeratu dute Mankomunitateko ordezkari

Dani Maeztu Aralarreko zinegotziak orain zazpi hilabete utzi zion Mankomunitatean Durangoko Udaleko ordezkari izateari. Azkeneko batzarrean Juan Jose Gaztañazatorre aukeratu zuten ordezkari barri. Gobernu Taldeak proposatu zuen PPKo zinegotzia, eta EAJren eta PPren botoekin onartu zuten. PSE-EEK Pilar Rios zinegotzi sozialista proposatu zuen eta Aralarren botoak jaso zituen. Talde Mixtoko zinegotziak abstenitu egin ziren.

PSE-EEKoen iritziz, Gobernu Taldeak Gaztañazatorre proposatu izana PPren eta EAJren artean dagoen "ezkutuko paktuaren ondorioa izan da; gainera, EBko zinegotzia falta zela kontu hori udalbatzarrerara ekarri izana ez da etikoa". Gaztañazatorre pakturik dagoenik gezurtatu zuen.

EAJ eta Aralar eztabaidan Landakoko aparkalekuagatik

Landako Guneko aparkalekuko prezioak merketzeaz bat dator Aralar: "Gobernu Taldeagaz lortu dugun akordioak pozten gaitu. Neurri horrek Durangoko merkataritzak daukan arazoetako bat arinduko du". Hala ere, "ez gatoz bat aparkalekuaren ordutegia murrizteagaz" (07:30-20:30 astegunetan eta 08:00-15:00 zapatuetan). Gainera, "aparkalekuko langileengan lan-baldintzen aldaketak ekarriko ditu". Gobernu Taldearen esanetan, "LESAko administrazio kontseiluak aho batez erabakia zuen eta kontseiluan talde politiko denak daude, Aralar barne".

BERRIZ

Autoestimua ikastaroa martxan

Otsailan nagusiei zuzendutako autoestimua ikastaroak antolatu ditu Udalak. Atzo izan zen lehenengo saioa. Hurrengo biak otsailaren 18an eta 25ean izango dira, 17:00etan hasita, hirugarren adinekoen egoitzan. Saioak doakoak dira.

Bestalde, otsailaren 24an, Urretxuko AIKUR erleen museo-ara bisita antolatu dute. Otsailaren 22ra artekoa da izena emateko epea, jubilatuen egoitzan.

Amaitzeko, martxoaren 11n, *El Correo* egunkaria bisitatuko dute. 10:15ean ipini dute hitzordua. Otsailaren 26ra artekoa da izena emateko epea, jubilatuen egoitzan.



anboto, durangaldeko asteakaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

BERBAZ >



Mariam Bilbatua •

- Magisteritza irakaslea
- Durangarra

“Ikasgeletan elkarrekin pentsatu eta deskubritzeko giroa behar da”

Idazten eta ikasten dabilzan umeen geletan izan da Mariam Bilbatua, gela barruko komunikazioa aztertzen

Ikasgeletan sortzen diren komunikazio hartu-emanak aztertu ditu Mariam Bilbatua durangarrak bere doktorego tesian. Magisteritza irakaslea da Bilbatua, eta tesian nota bikaina lortu du, cum laude kalifikazioagaz. Irakurtzen eta idazten ikasten dabilzan 5 urtekoen lau gelatan izan da bere ikerketa lana egiten.

Zer aztertu duzu zehazki tesian? Lau ikasgelatan gertatzen diren interakzioak aztertu ditut. Irakasleek ikuspegi metodologiko bera izan dute, eta programazioa elkarrekin egin dute. Programazioa gelaratzean zer gertatzen den ikusi gura izan dut. Teorian denek diote parte-hartzea bultzatu behar dela, umeen ezagutzetatik eta interesetatik abiatu behar dela... baina, gero, praktikan oso modu desberdinetan islatzen dute.

Ikasketa ereduak eragina izango du umeek nagusitan izango duten irakurzaletasunean?

Ikaste prozesuan izandako esperientzia guztiak garrantzitsuak direla deritzot. Hasierako esperientziak beti izaten dira garrantzitsuak. Ikasleentzat zer edo zer berria deskubritzeko unea da, eta interesa eta motibazioa piztea garrantzitsua da. Zelan planteatzen den, hasieratik egon daitezke gorrotoa eta porrotaren sententzia.

Motibazioa sustatzeko estrategia positiboak ikusi dituzu. Zeintzuk?

Parte-hartzea bultzatzeko hainbat bide dago: harridura erakustea, gertutasuna erakustea, eurek esaten dutena oso garrantzitsua dela erakustea, denon partehartzea bermatzea... Eztabaida bultzatzeko estrategietan, berriz, irakasleek galderak planteatzeko moduak garrantzia dauka. Galderak

denek parte hartzeko edo banan-banan ezagutzak ebaluatzeko egin daitezke. Oso giro desberdina sortzen da batera edo bestera.

Konfiantza giroa sortuko da.

Garrantzitsua da konfiantza giroa sortzea: ikasleek sentitzea irakasleak entzuten dituela eurek esaten dituzten gauzak; sentitzea ez daudela etengabe epaituta, posible dela eta ona dela hipotesiak botatzea, garrantzitsua dela besteek egiten dutena ikustea, norberaren ekarpenak emateko. Beste giro bat sortzen du horrek, hausnarketa gehiago bultzatzen duena geletan. Mentalki aktibo egotea bermatzen du.

Txikitatik gelan parte hartzeak zein onura ditu?

Ikasleek ezagutza euren eskura ere badagoela ikusten dute, esateko gauzak dituztela ikusten dute, eta hori txikitatik bermatu daiteke.

Motibazioa ez da bakarrik ondo pasatzea. Hori ere bada, eta garrantzitsua da, batez ere, haur txikien kasuan. Baina edozein adinetan, denek batera pentsatzeko eta deskubritzeko giroak motibatu egiten ditu ikasleak.

Irakaskuntzari zer ekarpen egiten dio zure tesiak?

Nik egindako tesiaren erako lanak garrantzitsuak dira irakasleek euren lanari buruz hausnartzeko. Irakasleon praktikaz hausnartzeko eredu bat sortu dudala uste dut.

Zer ikasi duzu zeuk?

Ikerketari esker elementu gehiago eta sakonagoak dauzkat gelako komunikazioa azaltzeko. Pribilegiatua sentitu naiz lau ikasgela horietan ateak zabalik izan ditudalako. Ikasgeletan zer gertatzen den hausnartzeko, adibide mordoak daukat orain. ■ A.U.

“Ikasleek ezagutza euren esku ere badagoela sentitu behar dute”

“Ikasgeletan gertatzen denaren inguruko adibide mordoak daukat orain”

EKONOMIA[>]

>DURANGALDEA

Mobilizazioak “gogortzeko” asmoa daukate beharginek

Ductilor-Fytasa enpresak 21 langile kaleratzeko asmoa dauka, eta beharginak protestan daude

Ductilor-Fytasako beharginek mobilizazioak “gogortzeko” asmoa daukate: hori erabaki du Langile Komiteak aste honetan egindako batzarrean. Astelehenean Erandiora joango dira administradore konkurtsalaren asesoria aurrean manifestazioa egiteko; hilaren 21ean, berriz, Donostiara joango dira. Bestalde, Ductilor-Fytasako langileen enpresa komiteak mozioa aurkeztu du Udalean.

Ductilor-Fytasako langileen enpresa komiteak mozioa aurkeztu du Udalean

ELA: “Ez dugu ezelako hartu-emanik administrazio konkurtsalagaz ez zuzendaritzagaz”

Elorrioko enpresak 120 behargin dauzka, horietatik 21 pertsona kaleratzeko asmoa daukate. Enpresa irailaren 15etik konkurtso prozesu batean dago; “beraz, Elorrioko kokatuta dagoen industria-proiektuaren sendotasunaren araberakoa izango da egoera beltz honetatik ateratzeko irtenbidea”, jakinarazi du Ductilor-Fytasako langileen komiteak.

Enpresak estintzio espedienteak aurkeztu zuen urtarrilaren 18an, “ordutik ez dugu ez zuzendaritzagaz ez administrazio konkurtsalagaz hartu-emanik izan”, adierazi du Mikel Elizburu ELAko ordezkariak. Enpresak beharginen delak daukan jarrera “lotsagarria” dela gaineratu du: “21 pertsona kaleratu gura dituzte eta ez dugu



Ductilor-Fytasako langileek enpresaren aurrean mobilizazioak egin eta kartelak jarri dituzte.

inongo informaziorik ezta inongo bilerarik ere”. Soldatak atzerapenagaz kobratzen dabiltzala adierazi dute langileek. Gainera, Mikel Elizburu ELAko ordezkariak azaldu duenez, “enpresa ixteko zorian badago, enpresak izan duen gestio txarragatik izan da; izan ere, gaur egun ere enpresan lana badago; langileak lanean daude”. ■ G.A.

Elorrioko enpresa konkurtso prozesu batean dago, irailaren 15etik

>ABADIÑO

Eusko Label, sektorea eta administrazioa hurreratu guran

Kalitatea Fundazioak sektore arteko jardunaldia antolatuko du, datorren eguaztenean, Abadiñon

Nekazaritzako elikagaien kalitatearen inguruan behar egiten duten agente nagusiak batu guran, sektore arteko jardunaldia antolatu ditu Eusko Labelak. Andra Mari elkartearen ipini dute hitzordua, datorren eguaztenean.

Esperientzia eta ezagutzak trukatzeko gunea sortzea da Eusko Labelen asmoa

Angel Rocha Eusko Labelko ordezkariak azaldu duenez, nekazaritzan arlo profesionalan eta instituzionalean diharduten eragileak elkartuko dira bertan “esperientzia eta ezagutzak trukatzeko helburuagaz”. Bi aldeak elkar ezagutu eta hurreratzeko da Eusko Labelak ekitaldian lortu gura duena.

Nekazaritza arloko euskal administrazioetako ordezkariak gonbidatu dituzte otsailaren 17ko zitara. Nekazaritza sailburu eta teknikariak, diputatuak eta zuzendariak ere batu dira jardunaldietan. Eusko Labela daukaten produktuen hainbat ekoizle ere jaso dute gonbidapena.

Egitaraua

Jardunaldia goizeko 09:00etan jarriko dute martxan Muntzaratz auzoko Andra Mari elkartearen. Euskadiko Kalitatea ziguila duten produktuen dastaketagaz amaituko dute ekitaldia. Saltsaneko Iñaki Urien sukaldariak prestatuko ditu jatekoak. ■ J.G.

Muntzaratz auzoko Andra Mari elkartearen antolatuko dute jardunaldia, eguaztenean

■kolaborazioa



Augusto Uriarte Behargintza

Ez gaude egon behar den lekuan

Durangaldeko jende gehiago dabil Athleticen jokalaria euskal politikaren eta ekonomiaren erabakiguneetan baino. Oso erraz eramateko moduko kontua da; zenbatzea baino ez. Esku batez zaurigorrien lehenengotaldean jokatzeko dutenak zenbatu ditzakegu, eta lau dira otxandiarraz. Beste eskuan nahikoa dugu hatzamar bakarragaz, Aldundiko garraio eta hirigintza diputatua da eta eskualdeko ordezkari bakarra.

Jaurlaritzari dagokionez, Ibarretxegaz ere gertatzen zen hau, eta Lopezegaz berdin segitzen dugu. Ez daukagu ordezkariarik EAeko gobernuan. Ez nabil organo legegileei buruz, horietan badaukagu eta kiderik (Batzar Nagusietan ere inor ez edukitzea baino ez genuen behar). Zuzenean izendatzen diren karguei buruz nabil, eskualde batzuei edo besteei proiektuak bideratzeko ahalmena dutenei buruz.

Eta ez hori bakarrik. Lehendakariak ekonomia gaietarako aholku taldea sortu berri du, eta horretarako ere ez du inguruotako inor aukeratu. Ardanza elorriarra ez dut kontuan hartu, denbora asko baitarama hemendik kanpora, baina gura badu zenbatuko dut. Euskal kutxetan, MCCn, unibertsitateetan, sozietate publikoetan, ekonomia eta garapenagaz loturiko erakundeetako erabakiguneetan pertsona gutxi dira gure artekoak.

Kostatu egiten zait onartzea, baina txarto goaz honetara. Maximak dioenez, banatzen den lekuan egon beharra dago, banatzen denean. Eta gu ez gaude hor. Gure buruetatik gora ikusten ditugu baloiak pasatzen, Elorrioko taldeagaz futboleko erdilarik jokatzeko nuenean niri gertatzen zitzaidan moduan.

Baina lasai egon gaitezke. Lezaman horrenbeste ordezkari edukita, seguru Athletic ez dela bigarren mailara jaitsiko.

Durangaldeko pertsona gutxi dago Bizkaiko eta EAeko erabakiguneetan

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]



ERAKUSKETA > PINTURA

Emakume legazpiarren margolanak Andragunean

Legazpiko Arkatza margolari elkarteko hamaika ikasleren lana da otsailaren 19ra arte Durangoko Andraguneko hormetan ikusgai dagoena.

Margogintza eskolako emakumeen lanak dira Andragunera ekarri dituzten guztiak; 18 eta 70 urte bitarteko emakumeek egindako lanak dira Pinondoko aretoan erakusketan ipini dituztenak.

Elkartean daramatzaten bi hamarkadetan lehenago euren lanak behin ere erakutsi bakoak dira Durangoko Andragunean euren lanak dituzten emakumeetarako. Durangoko Andragunea espazioan eskainitakoa izan dute lehenengoetariko aukera.

Margolariek eurek nabarmen-tzen dutenez, parte-hartzaileen adinari dagokionez oso talde anitz osatzen dute Legazpiko Arkatza batzen diren emakumeek: euren margolanak burutzeko erabiltzen dituzten teknikei begiratzeko edo euren koadroetan jasotzen dituzten gaietan arreta ipintzen badugu, agerikoa da heterogeneotasun hori.

Gaiari dagokionez, modu batean edo beste batean emakumearen gaiari erreferentzia egiten dioten koadroak aukeratu dituzte: 16 koadro ekarri dituzte Legazpitik kanpora egin duten lehenengo erakusketarako, Arkatza margogintza elkartetik. ■ I.E.

Otsailaren 19ra arte daude 16 koadroak Pinondon ikusgai

12 Arrasate Musikal Big Band

Otsailaren 19an, Durangoko Plateruenean, emanaldia eskainiko du Arrasate Musikal Big Band taldeak. Sarrera doakoa izango da 21 musikariko taldea ikusteko.



13 Iñaki Salvador jazzlariagaz

Otsailaren 12an, gaur gauean, Elorrioko Arriolan eskainiko duen 'Te doy una canción' proiektuari eta jazz musikari buruz jardun dugu Salvadorregaz.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Heriotza bizitzeko modu desberdinei buruz: 'Exitus'

Otsailaren 19an, 22:00etan, Arriolan izango dira Titzina Teatrokoak

Theatre Jacques Lecoq antzerki eskolan antzerki-gintza ikasten zeudela elkar ezagutu zuten Paul Merino eta Diego Lorca aktoreek 2001ean sortutako Titzina antzerki talde kataluniarraren azkeneko sorkuntza da heriotzari buruzko *Exitus*.

Otsailaren 19an, 22:00etan, Elorriko Arriolara dakarte 2009ko urtarrilean estreinatu zuten *Exitus*: ehorzle bat, lana bilatzen dabilen gizon bat, laborategi farmazeutiko bateko zuzendaria eta abokatu bat dira antzezlaren protagonistak. Heriotza ikuspuntu desberdinetatik bizi dutenak.

Ehorzlea, laborategi bateko zuzendaria eta abokatu protagonista

Heriotza ikusteko era desberdinen erakusle dira hiru protagonistak

Edonoren heriotzak ingurukoengan eragiten duen minagaz alderatzen dira antzezlanean, zelanbait, heriotza ohiko eta errutina duten pertsonen bizipenak. Esperpentoaren eta tragikomediaren artean, umore beltzez beteriko baina baita gizatasun handia erakusten duen lana da *Exitus*. Umore burutsua.

Aurreko lan batean zorame-na landu zuten Titzina teatro taldekoek, eta gerren inguruko antzezlana ere burutu izan dute. Heriotza lako gai "gaitza" ardatz hartzeraz auzartu dira oraingoan, *Exitus* antzezlanean.

Elorriko Arriolan erakutsiko dute *Exitus* Durangaldean lehenengoz; otsailaren 20an Zornotzan eta 21ean Durangoko San Agustinen ere izango dira. ■ I.E.

Esperpentoaren eta tragikomediaren ikutuak ditu lanak

Elorriko 19an, eta 20an eta 21ean Zornotza eta Durangon izango dira



MUSIKA > EMANALDIA

Orain hamar urtetik hona, 2000. urtetik, elkarrekin diharduen taldea da otsailaren 19an Durangoko Plateruenean ikusi ahal izango duguna. Jose Ramon Elkororen inguruan Arrasateko Musika Eskolako musikariek sortutako taldea da Arrasate Musikal Big Band. Elkororen izenaren hasierako bi urtetan taldearen zuzendari, baina Plateruenean 2002. urtetik zuzendari diharduen Zigor Martinez bergararra arituko da.

Martinez zuzendariaren batutaren aginduetara, 21 musikariek jardungo dute otsailaren 19ko kontzertuan Plateruenean oholtzan, Arrasateko Musika Eskolako irakasle edo ikasleak denak. Haizezkoak, sokazkoak eta perkusio instrumentuak jotzen dituzte 21 musikariek, eta Amaia Arriaran arituko da kantuan. Saxoak, tronboiak, tronpetak, gitarrak, baxua, pianoa, bateria eta perkusioak ekarriko dituzte Durangon.

Arrasate Big Band taldeko 21 musikariak Plateruenean

Arrasateko Musika Eskolaren inguruan sortu zuten taldea

Big Banden ohituraren, askotariko musika estiloen erakusgarri diren kantak eskainiko dituzte Plateruenean emanaldian: swinga, latina, bossa, funka eta rock doinuak, besteak beste. Hogeitik

gora instrumentu horiekin eta denen artean osatzen duten talde handiaren indarragaz eskainiko dituzte estilo ugariak abestiarik Durangon; orain arteko ibilbidean bi diskotan grabatuta utzi dituzten kantak, besteak beste.



Swing, latin, bossa, funka eta rock doinuak eskainiko dituzte

21 haizezko, sokazko eta perkusio tresnaren soinuak entzungo dira

Donostiako Jazzaldiaren bertako taldeen lehiaketan hartu zuten 2008ko 43. edizioan parte, eta otsailaren 19an, esandako moduan, doako sarreragaz Plateruenean gozagai izango dugu Arrasate Musikal Big Band taldea. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal Gerediagako kidea

Patxi Zurikarai

Gure herrietan hainbat eta hainbat pertsonaia interesgarri izan dugu. Gehienak ezezagunak dira jendearentzat. Euren lana eta herriarekiko konpromisoa ez da ezaguna. Durangon horrelako bat Patxi Zurikarai izan genuen, eta berari buruzko zertzelada batzuk aipatzera noa.

1915ean Durangon jaioa, Gasteizko apaizgaitegira joan zen ikasketak egitera. Bertan Barandiaran eta Lekuona izan zituen irakasle. Sotanak eskegi eta 4 urtez marinel joan zen munduko itsasoak zeharkatzen. Itzultzerakoan Durangoko batzokian inplikatu zen, eta politikarekiko konpromisoaz gain, kultura bultzatzen saiatu izan zen. 21 urte zituen 1936ko guda hasi zenean. Durangoko Defentsako Batzordean partaide izan zen, EAJko komisario gisa. Geroago, Ibaizabal eta Kirikiño batailoietan errolatu zen. Gudari sarjentu bezala bukatu zuten, 1937an Santoñan preso hartu zutelarik. 1937ko urriaren 15ean epaitu zuten eta heriotza zigorra eman zioten. Epai egunean, bere 14 lagun fusilatu zituzten kartzela berean. Larrinaga eta Burgosko kartzelatik igaro ondoren, 1938an, heriotza zigorra 30 urteko kartzela zigorratik aldatu zioten. Kartzelan euskarazko eskolak emanez, antzerkiak eta koruak antolatuz... pasatu zituen egunak.

1943ko martxoaren 31n aske utzi zuten. Astero guardia zibilen kuartelean aurkeztu behar zuten. 1944an EAJk hegoaldean antolatutako Euzko Naia izeneko isileko talde armatuan integratzen zen. Durangaldeko ardura bere gain hartu zuen. 1944ko azaroan Frantziatik etorritako 'maki' talde bat harrapatu zuten Gipuzkoan, eta Meliton Manzanan famatuak egindako "itaunketa" baten ondorioz, Bizkaiko Euzko Naia kideak jausi ziren, eta euren artean Patxi. Bederatzi hilabete kartzelan eman ondoren, epaiketa burutu zen eta aske utzi zuten. Epaietan sei hilabeteko zigorra jaso zuten eta ordurako bederatzizituen beteak. 1946an eta 1947an ere espetxeratua izan zen. Francoren garai guztian jarraitu zuen lanean klandestinitatean. Euskarari eta euskal kulturari ere hainbat ordu eskaini zion. Franco hil ondoren, 1979an Durango-Iurretako alkate hautatua izan zen. Bizkaiko Batzar Nagusietako kidea eta Jose Mari Makuaren agindupean Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturara Diputatu ere izan zen. 1999ko San Migel egunean, irailaren 29an, hil zen abertzale eta euskaldun hau.

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Kanta ezagun eta maitatuak jendea jazzera ekartzeko amu

Hiru hamarkada daramatza **Iñaki Salvador** piano-jotzaile eta Musikene musika eskolako irakasle donostiarrak musikari profesional legez, eta otsailaren 12an dakar Elorrioko Arriolara 'Te doy una canción'. Jazz musika batzuetan "hermetikoegia" den jakitun, entzulego zabalara jazz musikara eta inprobisaziora gerturatuko ditu abesti ezagun eta maitatuen bitartez

Madrilerako bidean harrapatu zaitugu, zer hitzordu daukazu Madrilén?

Orain hamar egun deitu zidaten Madrilén zuzeneko musika programatzen duten aretoen elkartetik (La Noche en Vivo), jazz musikari saria jasotzeko hautagai nintzela esateko. Eta hara noa, gaur delako sari banaketa. Hiru gara hautagaiak: Chano Domínguez piano-jotzailea, Pedro

Iturralde saxo-jotzailea eta neu gara jazz saileko aukeratuak. Bien laguna naiz, biekin jo izan dut, beraz, benetan pozik nago eurekin elkartzeagatik.

Lan eta proiektu askoko momentua bizi duzu azkenaldian, ezta?

Bai, baina, egia esan, kontuak ateratzen hasita ohartzen naiz adin batera ailega-

tu naizela: hogeita hamar urte daramatzat jazz musikari profesional moduan. Atzera begiratu eta ibilbideak askorako ematen du. Are gehiago nik egiten ditudan moduko lanetan: zentzu onean, oso promiskuoak gara. Musikari askogaz kolaboratzeko aukera izaten dugu. Talde iraunkorragoak (Mikel Laboa laguntzen 25 urtean ibili naiz, esaterako) eta lantzean behingoak uztartu ditzakegu.

“Elorrioko Ateneoa eta Arriola erreferentziazko guneak dira jazzlariontzat”

“Hiru musikari, abeslari bat eta antzezle bik jarduten dugu ikuskizun honetan”

Azken hiletan hainbat emanaldi izan dituzu Durangaldean. Zer edo zer aldatu da herri txikietan ere jazz musika zuzenean ikusi ahal izateko?

Egia esan, Elorrio kasu berezia izan da beti: blues eta jazz jaialdia mantentzen du, eta Ateneoaren zein Arriolaren aukera bikoitza eskaini izan du beti. Estatu-ko jazzlari askogaz berba eginda, Euskadiko beste leku batzuk ez, baina Elorrioren jo izana askok gogoratzen du. Nik neuk, Chano Domínguezekin egin nuen piano bikoteagaz eskaini nuen orain zazpi urte inguru kontzertua Elorrioren.

Halako zirkuiturik izan ez duten herrietan ere izan zara; Berrizen, kasurako.

Esango nuke Euskadiko Antzokien Sarea erakundearen musika ikuskizunak ere sartu izana aurrerapausu handia dela. Musikari zabaldu diote Sarea, eta guk *Te doy una canción* sare horretan sartzeko zortea izan dugu. Horrek erraztu digu, lehenago jazz musika eramatea hain erraza ez zen lekuetara ere helaraztea.

Elorrioko Ateneoko giroa edo eszenatoki handietakoa duzu gurago?

Ikuskizunaren arabera izaten da hori: hirukoteagaz (kontrabaxua, pianoa eta bateriagaz) jotzen dudanean leku txikiagoak gurago ditut, entzulea hurrago daukazulako. Baina orain aurkezten gabiltzan *Te doy una canción* ikuskizunean hiru musikari, abeslari bat eta kanta bakoitzaren ondoren olerki bat irakurtzen dituzten aktore bi gabiltza, eta espazio zabalagoa eskertzen da.

Nola sortu zen 'Te doy una canción'?

Urte askoan izan dudana gogoia da, jazz musika eta kantautoreen musika uztartzeko, horiek baitira nire bi pasioak. Asko entzun ditut gaztetan Hegoameriketako kantautoreak, Chileko taldeak eta, zelan ez, euskal kantagintza ere bai. Jazz musikan sartu nintzenetik izan dut pasio bi horiek batzeko gogoia, eta oraintxe lortu dut. Abestiak dioen moduan, “zorotuta egon barik, maitasun bi horiek aldi berean” bizi gura izan ditut.

Bertsioak egiteko abestiak aukeratzea ez zen lan erraza izango, ezta?

Oso gaitza izan zen. Alde batetik, oreka bat mantendu gura nuen hizkuntzari dagokionez: euskarazko eta gaztelarazko kantak gura nituen uztartu. Diskoan eta kontzertuan, euskarazko hiru abesti oso mitiko daude: Mikel Laboaren *Txoria txori*, Benito Lertxundiren *Bizkaia Maite* eta Amaia Zubiriaren *Lua, lua*. Gaztelarazkoen artean, Serraten *Mediterraneo*, Pablo Milanesen *De que callada manera* bildu ditut, besteak beste.

Oso abesti ezagunak izanik, seguru aha-petik kantuan aritzen direla entzuleak.

Bai, eta kantak hautatzerakoan beste gakoetako bat izan zen hori: abesti ezagunak izan zitezela. Egiten den jazz musika publikoarentzako “antipatikoa” izaten da batzuetan, eta jazzarekiko jendearen urruntasuna eragiten du horrek sarritan: “Bai musika intelektual eta aspergarria dela hori!” esaten dute askok; “Musikariak eurek ondo pasatzen dutela dirudi, baina entzuteko apur bat gogorra da”, pentsatzen du jende askok. Proiektu honetan asko pentsatu dut horretan, entzuleengana gerturatzeko helburuagaz: helburu ia dibulgatibo batez. Jendeari belaunaldiz belaunaldi barruraino sartu izan zaitzion abestiak aukeratzea amu-moduan erabili dugu jendea jazz musikara gerturatzeko. Kontzertu honetan erdi eta erdi jotzen dugu entzuteko “erraza” den musika eta jazzaren zein inprobisazioa. Harrera, egia esan, ikaragarria izaten dabil, eta ederra da jendea entzutea “gozamina” dela abesti hauen bitartez jazzean barneratzea. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

OTSAILAK 12 22:00etan
ROY LONEY & SEÑOR NO + THE HI RISERS + THE DIRTY PINK LADIES
 KONTZERTUA. Sarrera: 15-18 euro.

OTSAILAK 13 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
 AIKO TALDEA
 ERROMERIA. Sarrera doan.

OTSAILAK 19 22:00etan
ARRASATE MUSIKAL BIG BAND
 KONTZERTUA. Sarrera doan.

www.plateruena.net

Eguneko menua asteleheneretik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

EXITUS
 Titzina Teatro (Barcelona)
 Otsailak 21 • 19:00etan

CURSO DE IMBECILIDAD
 La búsqueda del propio clown
 Pep Villa (Girona)

Otsailaren 22tik 25era
 16:00-20:30

San Agustín KULTUR GUNEA
 DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburubanda

Tf.: 94 601 07 76 Arriekale, 14 Durango

MUSIKA > KONTZERTUA

Humphreyren "Euskal-rumba" doinuak Berrizen

Gaur, 21:00etan hasita, Berrizko frontoian du Humphrey kontzertua eskaintzeko hitzordua

Eszenatoki batera igo zen lehenengo aldialehenengo hezkuntzako bigarren mailan zebilela izan zela gogoratzen du Humphrey berrizko kantariak. Elvis imitatzen zuela kontatzen du. Oraingoan, Memphiseko abeslariarena egiten ez, ezpada berak sortutako kantak herritarrei eskaintzen jardungo du Berrizko frontoian, jaio zen herrian, otsailaren 12an.

Eskolan Elvisek kantakera eta mugimenduak imitatzen zituenetik daki eszenatoki gainera igo eta kantatzea dela gehien gustatzen zaiona. Geroago, gaztetan hainbat taldetan jardun zuen, eta Salamanca eta Madrilan eman

zituena heavy-metal talde batez kontzertuak. Hainbat urtetan kontzerturik eskaini barik egon da; arrazoia galdetuta, "ez dut gogoratzen, eta ez du gogratu gura, gainera", erantzun du.

Hala ere, etxean gitarra jo eta abesteari denbora horretan ere sekula ez diola utzi aitortu digu. "Abestea sentimenduak adieraztea" dela ikusten du, eta orain sei urte ekin ziola berriro.

"Kantetan alaitasuna eta umorea helaraztea da nire helburua"

Orain, bizitzeko geratzen zaion denbora abesten emango duela erabaki duela dio: sistemari buruz eta gure miseriei buruzko bere abesti alaiak sortzen. Bere berbatan "injustizia eta esklabuak sortzen dituen sistema salatu" gura ditu bere kantetako letrekin. Abestietako gaiak, "pachamama"—amalurra— eta maitasuna izaten ditu Humphreyk, eta "umore ona doako baina beharrezko gauza" dela aldarrikatzen du.



Gaztetan baino erritmo soil eta beroagoekin

Orain urte batzuk herriko Marino Lejarreta txirindulariari eskainitako abestia eman zuen ezagutzera Humphreyk. Gaur, otsailaren 12an 21:00etan hasita Berrizko frontoian duen emanaldian, besteak beste, *Dame tu calor* kanta eskainiko du. "Euskal-rumba" izenagaz sailkatzen du berak, eta askapenari buruzkoa dela azaldu digu. "Gaztetan oso heavy edo punkia izan arren, adinagatik beharbada, indar hori joan zaidalako edo, erritmo soil eta beroagoak bilatzen ditut orain" dio. Jen-deak kantatu eta txaloeekin lagundu dezan a proposagoak.

"Kantatzen dudanean arima biluzteko lotsarik ez daukat"

Abesti gehienetako gaiak maitasuna eta natura izaten ditu

Kantatuz arima biluzteko lotsarik ez daukala ere badio berriztarrak: "Nire miseriez eta egin ditudan hankasartzez egiten dut berba". Hori adierazteko, "gitarra gogor astintzen" eta "kantatu baino gehiago oihera" egiten duela dio. Melodiaren doinua egiteko turuta erabiltzen du, eta gitarragaz egiten abesti guztien basea, rocka edo rumba estiloan. Ahalik eta akorde gutxienekin eta kontraste erritmiko gehienekin osatzen ditu abestiak. ■ I.E.

MAGIA > EMANALDIA

Magia eta umorea uztartu zituzten Errotan



Joan zen zapatu arratsaldean, Abadiñoko Errotakultur etxean egin zuen Asier Kidam mago gasteiztarrak aldameneko argazkiko saioa.

Umeei zuzenduriko magia eta antzezlan ikuskizuna gozatzerako 90 lagun inguru batu zirela esan digute aretoko arduradunek. Aldameneko irudian jasotakoa lako trikimailu harrigarriak ikusi ahal izan zituzten bertaratutako ume zein helduek.

Kartekin, puxikekin eta bestelako objektuekin magia trikimailuak eta umorea ere lantzen duen artista da Kidam gasteiztarra.

Hurrengo Txanportan

Herriko San Blas jaiek iraun duten denboran, buru-belarri jaietako programazioa prestatzen jardun eta gero, Matienako Errotakultur etxean datozten asteetan izango diren ikuskizunak lotzen dihardute arduradunek.

Umeei zuzenduta Abadiñon izango den hurrengo emanaldia bihar 18:00etan izango da: Kixka antzerki talde eibartarraren *Bolaluma* antzezlan izango da aukeran, Txanportakultur etxean. Bestalde, datorren hileari begira, martxoan Oihulari Klown taldeak *De película* antzezlan eskainiko du. Martxoaren 13an, 20:00etan eskainiko dute Virginia Imazek zuzentzen duen lan hau, Matienako Errotan. ■ I.E.

HARATEGIAK

ABADIÑO

Milikua
Teo

BERMEO

Izarzugaza
Barturen
Emilio

BERRIZ

Jon Armas Garcia

BILBAO

Iñaki
Francisco Atutxa

DIMA

Igor Zuazo

DURANGO

Rafael Agirre
Gallastegi
Pablo Areitio
Jose Luis Etxaniz
Olabe

ERANDIO

Luis Angel

GALDAKAO

Javier Sagasti

ERRALDE

HILTEGIA

GERNIKA-LUMO

Iturbe Anaiak
Jesus Maria Martija
Teresa Arrien

IGORRE

Rekalde

IURRETA

Alberdi prekozinatuak
Javi Cebada

MAÑARIA

Rafael Bizkarra

ONDARROA

Belaustegi anaiak

OTXANDIO

Angela Ruiz
de Samaniego

ZORNOTZA

Fernando Aldazabal

JATETXEAK

BERRIZ

Pedro Juan
Ganeko Etxe
Toki Ona
Ereña

LA ARBOLEDA

Meaztegi Golf

ZORNOTZA

Boroa
Juantxu




Askatasun etorbidea 48

48200 Durango

Tel.: +34 94 681 02 48

Fax: +34 94 621 77 66



Pilar Zubiaurre: oihartzunik bako intelektual garaitarra



Pilar Zubiaurre bere seme Leopoldo eta senar Ricardo Gutierrezekin. Saturrarán argitaletxea

Errepublikasasoián Madrillgo mugimendu kulturalerako partaide bizia izan zen Pilar Zubiaurre garaitarra. Literaturaren gainean hausnartu eta idatzi zuen; sektore feministetan ere jardun zuen. Historiak, baina, ahazturan eduki du bere izena. Bere bizitza eta lana kontatzen dituen liburua aurkeztu zuten, joan zen zapatuan, Garain.

Edozeren gainera emakume sentitzen zen; militante feminista zen

Historiagarai leekidazten ei dute. Pilar Zubiaurre feminista zen eta, gainera, sozialista baten emaztea; bere ibilbidea eta lana gerizpean egon dira luzaroan. Garaiko Udala, Gerediaga elkarte, Hamaikabide elkarte, Saturrarán argitaletxea eta BBKri eskerrak, Garain jaiotako intelektualari buruzkoak argitara irten dira. Iker González-Allende Nebraskako irakasleak osatu du Pilar de Zubiaurre: Evocaciones. Artículo y Diario liburua.

1884an jaio zen Pilar Zubiaurre, Garain. Lau urtera arte Abadiñoako Lebarion hazi zen, eta handik Madrileren joan behar izan zuen. Izan ere, bere aita Madrillgo errege kaperako musika zuzendaria zen; Paz Agirrezabal zuen ama. Hamaikabide elkarteak erbesteratutako euskal kulturagileen lana batzen dihardu, eta Jose Angel Ascunce kideak Zubiaurre-

ren “izaera euskalduna” nabarmendu zuen, Garaitik Madril eta Mexikoko bidea hartu arren.

Madril kulturalerako

Aitarene moduan, Ramon eta Valentin nebak ere artistak zituen. Giro kulturalerako hezita, berak ere literaturagazko afizioa zeukan. 1922an, “Juan de la Encina” legez ezaguna zen Ricardo Gutierrez Abascalegaz ezkondu zen; Arte Garaikideko Museoaren zuzendaria zen Gutierrez. Biek batera, errepublika sasoián tertulia literarioak antolatu zituzten, partaide ezagunekin: García Lorca, Jiménez, Ortega y Gasset, Salinas... Hain zuzen ere, Lorca berari eskainitako olerki baten aztarnatik hasi zen Gerediaga elkarte Pilarri buruzko azterketan.

Horretaz aparte, edozeren gainera emakume sentitzen zen.

Militante feminista zen, eta bere lanean islatzen zen hori. Clara Campoamor, Maria Maeztu, Victoria Kent eta beste hainbat emakume lagun zituela, Lyceum Club Femenino sortu zuen, Espainiako lehenengo elkarte feminista eta gerra-urreko erakunde intelektual nagusietakoa izan zena. Neska umezurtzen etxe batean ere lan egin zuen.

“Baina emakumeen lanek ez daukate garrantzirik; ez du merezi gogoratzerik”: zenbaiten iritzia eta askoren subkontzienteko ideia hori aipatu zuen, joan zen zapatuko ekitaldian, Joxerra Zabalak, Pilar hain ezaguna ez izateko arrazoi moduan. Aitarene, neben eta senarraren itzalean egotea eta gaitzenez sinatzea ere aipatu zituen, baina indar gehiago ematen zion emakume izateagatik diskriminazioari. Libu-

ruaren egilearen ordeztorri zen Zabala.

Deserrira

Pilar eta Ricardok, askoren antzera, gerra hastean ihes egin behar izan zuten, eta Mexikon ekin zioten bizimodu berriari. Erbesteratu guztien moduan, nostalgia izan zuten bidelagun. Egoera horrek asko baldintzatu zuen Zubiaurreren sorkuntza; Mexikoko *Euzko-Deyan* idatzi zituen artikulu batzuk.

Garai eta Durangaldeko mendiak beti bihotzean izan zituen Zubiaurrek, eta 60ko hamarkadatik aurrera bisitaldiak egin zituen. Gontzal Sarrigoitia alkateak “ezagutzeko zortea” izan ei zuen, eta bere ipuinez akordatu zen zapatuan. Nerea Mujikak liburuaren kaleratzea “pozez” baloratu zuen, Gerediagaren izenean: “Emakume haren bizitza, lana eta ametsak berreskuratu behar zirelako”.

Mexikon hil zen Pilar Zubiaurre 1970ean. Baina bere guraso eta nebeekin batera, Anbotori begira hartzen du atsedean. Ricardo ere bere alboran ekarri gura dute, guztiei merezitako omenaldia eskaintzeko. ■ M.O.



Iker Gonzalez-Allende •

- 31 urte. Liburuaren egilea
- 8 urtez irakasle AEBetan

“Zor historikoa daukagu”

Nebraskako Unibertsitatean espainiar literatura eta kultura erakusten dihardu bilbotar honek. Hamaikabidegaz kolaboratzen du.

Zelan murgilduzinen lan honetan?
Jose Angel Ascunce irakasleak erbesteratutako euskal emakumeen gaineko liburu batean kolaboratzea eskaini zidan. Joxerra Zabalak editatu zuen lan hori, eta Pilar Zubiaurreri buruz datu batzuk ezagutzeko aukera eman zidan. Gero, sakontzea erabaki nuen, euskal eta espainiar literaturan horrenbesteko garrantzia izandako emakume bati buruz oso gauza gutxi idatzita egoteak harritzen ninduen-eta.

Zertan sakondu zenuen?

Leopoldok, semeak, amaren biografia bidali zidan Mexikotik, eta beste hainbat testu ere bai; egunerokoa, esaterako. Garaiko euren etxean ere izan ginen biok.

Bilboko Arte Ederren Museotik pare bat izkribu eskuratu nituen, eta *Bizkaitarra* eta *Euzko Deyako* artikulua ere batu nituen.

Zelan definituko zenuke Pilar?

“Adimentsua eta jakinmin handikoa zen”

Emakume inteligentea eta jakinmin handikoa zen: euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa menperatzen zituen. Indartsua, erromantikoa, karismaduna, fededuna eta euskalduna zen.

Deserriak eragin zuen Pilarren lanean...

Bai. Zubiaurrek egunerokoa idazteari utzi zion, eta Euskal Herria gogoratzeko beharrez hasi zen *Euzko Deyan*. Gainera, lehenengo urteetan gaixorik egon zen.

Historia garaileek idatzita ei dago...

Erbesteratuak ezin izan dira ikeritu euren herrietan, eta hartu zituzten lekuetan ere gaitza izan zuten egokitzea. Garrantzitsua da galtzaileen memoria berreskuratzea; zor historikoa da.

Zer darabilzu orain esku artean?

Gerra zibileko Espainiako narritibari buruzko liburu amaizten nabil. Pilarren hartu-emanen gutun-liburu ere osatu gura dut.

Zubiaurretarrak: artistaz beteriko familia

Pilar Zubiaurreren amaren gainean gutxi dakigun arren, bere aita eta nebak artista bikainak izan ziren.

Aita, musikaria

Aita, Valentin, musikari ospetsua izan zen. 1837an jaioa, Bilbon hasi zuen bere ibilbidea umeen abesbatza batean, eta gero organoa ikasten jarraitu zuen.

1852an Hego Amerikara joan zen, eta irakasle moduan ibili zen hainbat herrialdetan. 1866an Madrilgo Kontserbatorioan jarraitu zituen ikasketak; 1869an Musika Lehiaketa Nazionala irabazi zuen *Fernando el Emplazado* operagaz. 1873an Italia, Frantzia eta Alemania bisitatu zituen. 1875ean errege kaperako bigarren zuzendaria izan zen, 1978an lehenengoa izatera pasatuz. 1914an zendu zen.

Nebak, margolariak

Valentin (1879-1963) eta Ramon (1882-1969) nebak margolariak izan ziren. Aitak musikariak izatea desio zuen, baina bi semeak gorak ziren.

Urritasun horijotzen dute aditu askok anaiek zeukaten hartu-emon berezia argudiatzeko. Biek akademietan ikasi zuten, eta Europan zehar ere ibili ziren. Bizkaiko Aldundiak emandako bekari esker, 1902an Italia-ra joan ziren batera, adituen ustez heldutasun artistikora helduz. Euren lanak antzekotasunak eduki arren, Valentinenak malenkonia gehiago islatzen zuen. Euskal gaiak lantzen zituzten, batez ere.



Pilar bere guraso eta nebeekin Garaiko baserrian

Familiaz arduratzen zen sortzailea

Pilar Zubiaurrek konpromiso sozial eta politiko argia zeukala kontatu dugu, baina familiagaz ere ez zeukan txikiagoa.

Neben laguntzaile

Bere nebak gorak zirenez, beti eurei laguntzen ibili zen Pilar, amatasun sentimendua barneratuz. Valentin eta Ramonek egindako lanaren bozgorailu ere izan zela esan daiteke.

Hain zuzen ere, bere neben pintura estudioan antolatzen zituen tertulia literarioak. Artikulu nagusian aipatu dogun moduan, mugimendu eta zeregin askotan sartuta zebilen garaitarra. Argitaratu berri duten liburuan, bere hurrekoei bidalitako karta batzuk aurkitu genitzake, esate baterako.

Idatziak

Horretaz gainera, komunikabideetan kaleratutako artikulua ere batzen dira, eta Leopoldo Gutierrez semeak eskainitako biografia ere bertan dago.

Pilarren idatzien artean, Iker Gonzalez-Allende egileak *Marichu* eta *La etxekoandre* artikulua nabarmendu dizkigu, Zubiaurrek defendatzen zuen euskal emakumearen eredu islatzen dutelako: indartsua eta bihozbera. Gaztetako idatzietan, artista izateko ametsak aipatzen ditu, gerra sasoiaren ideia politikoak lantzen ditu eta erbestealdikoetan atsekabea azaltzen du.

Hainbat egilek berari eskainitakoak ere batzen ditu liburuak. Tartean Federico García Lorcaren *Tres ciudades*, *Barrio de Córdoba* eta *Baile* izeneko olerkiak.



Pilar Zubiaurre

ERITZIA >

Gutunak @

Abadiñoako Udala eta Osakidetza

Herritarrek Traña-Matienara ekarriko duten mediku berriari buruz hitz egiten ari dira, baina benetan gertatzen ari dena jakin dezaten nahiko nuke.

Hasieran, Udalak Matienara beste mediku bat ekar zezaten negoziatu zuen, baita Matienako anbulategia handitu zedin ere. Orduan, Osakidetza itzelezko gola sartu zion Udalari, medikuen kupoei buruzko informazioa ez baitzuen eskatu.

Mediku bakoitzari 1.500 pazienteko kupoa dagokio, gutxi gorabehera. Matienako hiru medikuek gehiegizko 300 pazientetara dituzte bakoitzak; hiruren artean 900 eginez.

Zelaieta osasun zentroan mediku bakarra dago eta gehiegizko 500 paziente ditu, gutxi gorabehera.

Osakidetza, "giza-kalkuluetan" oso trebea denez, hurrengo hau egin zuen: Matienako gehiegizko 900 pazienteak hartu, Zelaietan dauden gehiegizko 500 pazienteei gehitu eta... hor daude 1.400 paziente mediku berriarentzat.

Orduan, non dago akatsa? Urtebeteko epean, Abadiñoako Udalaren aurrean egiten ari diren etxebizitzetara 60 bat lagun etorriko dira bizitzera. Urte biko epean, Muntzaratz auzoak beste 700 bizilagun izando ditu.

700 gehi 60, 760. Kopuru horri Matienako medikuarengana joan behar diren 500 pertsona gehitzen badizkiogu, nire kalkuluen arabera, 1.260 pertsona izango liriateke; nahikoa Abadiño-Zelaietara mediku berri bat ekartzeko.

Ondorioa: Abadiñoako Udalak zergatik ez du hasieratik negoziatu Osakidetzarekin Matienako anbulategiaren eta Zelaietako osasun zentroa handitzea? Nik uste dut aurreikuspen falta nabaria dagoela.

Hori gutxi-eta, Zelaieta eskolarekin gauza bera gertatzen ari da. Zeri itxaroten gaude arazoa konpontzeko? Berez, eta ezer egin gabe, konponduko dela iruditzen al zaizue?

Bittor Etxeguren Moreno (Abadiño)

Beste proposamen oker bat

Berriokiaren 54 zenbakian argitaratu dute Elorrioko Hiri Ordenamenduaren Plan Nagusirako udal gobernuak egin duen bigarren bertsioa, eta gezurrez josita datorrela salatu nahi dugu:

1- Ez da 430 etxebizitza egitea proposatzen, baizik eta 730. Izan ere, Linceko industria lurzorua eta Elizaldeko lurak bizileku legez birklasifikatzeak 300 etxebizitza gehitzea suposatzen du. Hau da, lehenengo bertsioan 634 etxe egitea aurreikusten zen, orain aldiz, eta emandako klasifikazioak gune industrial horren etxebizitzarako garapena bermatzen duenez, %15 gehiago dira. Hortaz, ez dira 430 etxebizitza, baizik eta 730.

2- Ez da proposatzen etxeen %70 babesutakoak izatea. Horretarako aipatzen ez diren Linceko lurretan egitea bada goen 300 etxeak ere kontuan izan beharko liriatekeelako. Udal gobernuaren proposamenari jarraituz, babesekoak bakarrik 127 liriateke eta beste 98 tasatutakoak.

3- Herrigunetik (San Anton) kanpoaldera eramandako babeseko etxeak kontatuz gero, hiriguneko lurretan egingo diren babeseko etxeak 67 bakarrik dira; legez, gutxienez, 72 izan behar dute. Proposamen berriak lehenengo aukeraren izaera sozial segregazionistari eusten dio.

4- Pullako industriagunearen lur-azalak ez dauzka 7 hek-

tarea. Bigarren bertsioaren arabera 10,5 hektarea ditu. Baina benetako klasifikazioak 15 hektareak gainditzen ditu, errepi-dea eta saihebidetaren arteko lurzorua industriagunearen urbanizazioak automatikoki klasifikatuko lituzkeelako. 15 hektarea horiei Zabaleta hegoaldeko 1,4ak, Neco-Rottenbergerko 0,5ak, Oidor-Berriozabalbeitiako 1,5ak, Forjasko 2ak, San Agustingo 2ak eta Linceko birklasifikazioaren 3ak gehituz gero, industriagunerako lurzorua proposamenak 25 hektarea baino gehiago batzen ditu.

5- Denon artean herritarren parte-hartze prozesuaren ondorio nagusiak oso argiak dira:

- Gehieneko bizilagun kopurua: 8.000 biztanle
- Gehieneko etxebizitza berrien kopurua: 350
- Nekazaritza-Basogintzako Lurralde Arloko Planaren bidez landa eremuko lurak babestea, balio estrategiko handiko landa eremuko lurren kalifikazioa errespetatuz.
- Industria lurzorua gehieneko azalera: 6 hektarea, erabili gabeko industria lurzorua kenduta; Nekazaritza-Basogintzako Lurralde Antolamendu Planean balio estrategiko handiko lurzoru gisa hartuak izan daitezten.

Hauetako proposamen bakar bat bera ere ez da ezker abertzaleak herrian banatu duen testuan.

6- Ez da aipatzen industria lurzoru urbanizagarri legez izendatu diren 15 hektareak Nekazaritza-Basogintza Lurralde Arloko Planean balio estrategiko handiko landa eremuko lurak direla, Denon artean prozesu parte-hartzailearen ondorioekin kontraesana sortuz.

Horregatik esaten diogu ezetz, berriz ere!

EHA (Elorrioko Herritarren Aukera) (Elorrio)

Klik batean @



Abandonatutako kontenedoreak

Durangoko Eguzkitza auzoan abandonatutako hainbat kontenedore aurkitu ditugu. Biltegi honek hainbat kotxe aparkatzeko plaza betetzen ditu. Garbigunetik hain gertu eta hain urrun!

Sei hankako mahaia



Jose Luis Zubillaga
Ezker Batua-Berdeak

Iurretako Abadetxea

Iurretako Udalak, joan zen otsailaren 5ean egindako udalbatzararen osoko bilkuran, aho batez onartu zuen Abadetxea ez erostea eta hondamendi ekonomiko, hirigintzako eta fisikoa deklaratzeko bidea hastea.

Urte askoan Abadetxea erostea izan da Iurretako Udalaren asmoa, zaharberri eta udal liburutegia bertan ipintzeko. Horretarako, hainbat batzar egin da gotzaingoagaz (etxearen gaur egungo jabea hura da-eta) ekonomikoki adostasuna lortzeko.

Eraikinaren gaur egungo egoera eta berritzeko aukerak ezagutzeko, URA agintzari azterketa eskatu zitzaion. Txosten horretan, berritzeko aukera badagoela diote, baina beheko solairua bizitegi-erabilerarako baztertuz, sotoak kenduz eta beheko solairurako, teilaturako zein zabaltzarako sarbideak ere kenduz. Zehatzago esanda, 490 metro karratuetatik 330 geratuko liriatekeela, beste 160 igogailu bat, komunak eta almazena egiteko erabiliz. Azken batean, azterketa horren arabera, ez da bideragarria interes publikoko edo erabilera sozialeko jarduerarik eraikin horretan bideratzea.

LKSri, berriz, ingeniariatza azterketa bat eskatu zion Udalak, eraikinaren balorazio tekniko-ekonomikoa egin zezan, eta zaharberrikuntza garestia litzatekeela dio azterketa horrek: milioi bi euro, apezpikutzak eskatzen dituen 970.000 euroez gainera. Datu horiek esku artean dituela, udal idazkariak txostena helarazi du eraikina erosi eta berritzea baztertzeko aholkatuz.

Jausteko zorian dagoela dioten deklarazioarekin, apezpikutzak erabaki beharko du eraikina zaharberri ala bota, sortu litezkeen gastu guztien kargu berak egin beharko duela kontuan hartuz.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko otsailaren 12a - 9. urtea - 361 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurretako	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Kataide Industrigunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

ORAIN DURANGON!

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



22 LH-2000
TV 22" LG
240 €



26 LH-2000
TV 26" LG
HD Ready
360 €



LE-32B450
TV 32" SAMSUNG
HD Ready
375 €



TX-L32S10
TV 32" PANASONIC.
Full HD 1080
450 €



TX-P37104
TV 37" PANASONIC
Full HD 1080
520 €



1000 b/min
7 Kg

GARBIGAILUA WM10E20EP
370 € 



1200 b/min
7 Kg

GARBIGAILUA WAE 24472FEP
450 € 



7 Kg

LEHORGAILUA WTC 84101EE
375 € 



ONTZI-GARBIGAILUA 2LF013SX
435 € 



1850 X
600 X
600

NO FROST

HOZKAILUA DREAMG 185
490 € 

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN, Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

			
ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MEKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELATUKO DIZUGU	+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 12an, 22:00etan

IÑAKI SALVADOR

“Te doy una Canción” izenburupean Iñaki Salvadorrek jazz, autore-kanta eta poesia elkartzen ditu. Ikuskizunean estilo ugariak abesti bilduma eskaintzen du, konplexurik barik aukeraturakoak; hau da, bere memoria musikal eta afektiboaren zati direnak: M.Laboa, B. Lertxundi, P. Guerra, Serrat edo Pablo Milanés musikarien bertsoak eskainiko ditu, A.Yupanqui, J.Sarrionandia, M. Benedetti... idazleen testuez lagunduta.

ANTZERKIA

ABADIÑO

>> **Umeentzako antzerkia ‘Boluma’** Umorezko antzerkia hilaren 13an, 18:00etan Txanporta kultur etxean.

ELORRIO

>> **Umeentzako antzerkia ‘Robot Maitea’**, otsailaren 14an 17:00etan Arriolan.



>> **Umeentzako antzerkia ‘Mementu Ridiccoli’**, otsailaren 16an 11:30ean Arriolan.

BESTEAK

DURANGO

>> **Umorezko bakarriketa** Raúl umoregileagaz ilaren 12an 23:30ean Misarben.

IURRETA

>> **Iurreta Txirindulari Elkarteak 75 kilometroko ibilbidea** antolatu du otsailaren 13an eta 14an, 10:00etan Iurretan.



>> **Santa Apolonia jaiak.** 11:30ean Meza, ondoren iurretako dantzariak eta luntxa.

ZALDIBAR

>> **Gaztelekua** otsailaren 12tik 14ra, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. 12 eta 16 urte arteko gazteentzat.

DEIAK

DURANGO

>> **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> **“Urtaroak” argazki erakusketa.** Maite Gorrotxategiren lana otsailaren 14ra arte Kultur etxean.

DURANGO

>> **“Sudurra sartzen. Esentziak eta usain naturalak” erakusketa** otsailaren 14ra arte, Ezkurdi Plazan

>> **Legazpiko Arkatza kultur elkartearen margo erakusketa.** Otsailaren 19ra arte, Andragunean.

ERMUA

>> **Zeramika erakusketa.** Otsailaren 16tik 28ra Lobiano kulturgunean.

>> **Margo erakusketa. “Patologías número 2: el arco senil”** otsailaren 1etik 14ra Lobiano kulturgunean

ZORNOTZA

>> **“El silencio del ser” erakusketa.** Koldo Etxebarriaren lana otsailaren 15era arte Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ABADIÑO

>> **Sexualitate tailerra**, barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko Berdintasun Sailera jo (berdintasuna@abadiano.org).

DURANGO

>> **Zaindu programaren baitan**, Durangoko adinekoen udal egoitzan: **Mendekotasuna duten adinekoen zaintza lana**, otsailaren 17an. Ordu eta erdiko saioak dira. **Taldeko laguntza psikologikoa**, bizipenak elkarbanatzeko, otsailaren 16an. Ordua: 17:30-19:30.

>> **Patinaje ikastaroa**, zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

>> **Dantza ikastaroa**, martitzen eta eguenero. Gaueko 21:00etatik 22:00etara, Landako kiroldegian izango da. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

>> **Stretching ikastaroa**, barikuetan, 20:00etatik 21:00etara, Landako kiroldegian. (Informazio gehiago: 94 603 0031 telefonoan).

>> **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

>> **Adinekoentzako denetariko ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.** Izen-emateak Durangoko adinekoen udal egoitzan.

>> **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emateko Liburutegira gerturatu.

ELORRIO

>> **Argazkilaritza ikastaroa.** Otsailaren 22, 23 eta 24. Eta martxoaren 1etik 3ra. Ordua: 19:00etatik 20:30era. Elorrioko argazki taldeak antolatuta Kultur Etxean. **Izena eman**



ahalik eta arinen, plaza mugatuak dira-eta. E-mail: eat@kzgunea.net

IKUS-ENTZUN

DURANGO

>> **Zinegoak** film laburren emanaldia otsailaren 12an, 20:15ean San Agustinen.



IPUINAK

IURRETA

>> **Haurrentzako Ipuin kontaketa,** Otsailaren 12an 17:30ean, 3-4 urte bitartekoentzat. 18:00etan, 5 urtetik gorakoentzat. Iurretako Herri Liburutegian.



JAIK

INAUTERIAK

BERRIZ

>> Otsailaren 12an, **Haurreskolaren kalejira** 10:30ean. **Mozorroren kalejira** Berrizko kaleetan, 11:00etan. **Learreta Markina Eskolaren ekitaldia** 12:00etan eskolako patioan (euria eginez gero, Berrizburu Kiroldegian). **Trena Olakuetatik Elizondora**, 12:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era. **‘Bazen behin...espazioa’ umeentzako antzerkia** 17:30ean frontoian. **Txokolate dastaketa** probalekuan, 19:00etan. **Humphrey Caoren kontzertua**, 21:00etan Olakueta frontoian.

>> Otsailaren 13an, **Sama Sikua txaranga** irtengo da Olakueta Plazatik 17:30ean. **Koadrilen topaketa** Elizondoko plazan 18:00etan. **Mozorro lehiaketa** 18:30ean Elizondoko plazan batzen diren koadrilen artean. Sariak: 250 euro 16 urtetik gorakoentzat. Afaria, 16 urtetik beherakoentzat.

DURANGO

>> Otsailaren 13an **Surrandi eta**



Hartzaren Konpartsen kalejira, merkatu plazatik irteera 18:45ean, eta amaiera Andra Mariko elizpean 20:00etan.

>> Otsailaren 16an **Txu txu Trena**, goizean 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara izango da. **Umeentzako Parkea** Landako Gunean, 16:00etatik 20:00etara. **Gazteentzako mozerro jaialdia:** diskoteka, karaokea, animazioa eta sarien zozketa. San Agustín Kultur Gunean, 16:30etik 19:30era. **Haur berbena Rum Rum Rock** taldeagaz Landako Gunean 17:30ean.



>> Otsailaren 16an **Tostada Lehiaketa** IV. edizioa. Erretiluak entregatzea 17:30etik 18:00etara. **Duo Menta orkestragaz dantzaldia** 18:00etatik 20:00etara. **Tostada Lehiaketaren sari banaketa** 19:00etan. Ekintzak adinekoen udal egoitzan izango dira.

ELORRIO

>> Otsailaren 16an **Ikastetxeen mozerro desfilea**, 10:30ean

Plazan. **Ume txikientzat antzerkia** Arriolan 11:30ean. **Haur parkea** plazan, euria egiten badu kiroldegian. 12:00etatik 13:30era eta arratsaldean 16:00etatik 18:30era. **Txokolatada** plazan 18:30ean. **Berbena Kresala** taldeagaz, plazan 18:30etik 21:00etara.

ERMUA

>> **Hartzaren kalejira** Otsailaren 12an 18:00etan Orbe kardinalaren plazan.



>> **Haurrentzako txokolate jana** Otsailaren 13an 18:00etan Orbe kardinalaren plazan. **Haurrentzako erromeria Xixilipurdi taldeagaz** 18:30ean. **Kalejira txaranga** 19:00etan. **Haurrentzako Mozorro Lehiaketa** 20:00etan. **Blues&rock kontzertua:** Big Mama Montse&Blueslab3. 23:30ean Orbe kardinalaren plazan.



>> **Dendari eta ostalarien bandaren kalejira** 08:30ean. **Haurrentzako diskoteka** 16:00etan. **‘Macroscopi’** kale ikuskizuna 19:00etan. **Folk kontzertua Korrontzi** taldeagaz 23:30ean. **Mozorro Lehiaketa**, otsailaren 13an 20:00etan. Ekitaldi guztiak Orbe Kardinalaren plazan izango dira.

IURRETA

>> **Inauteri Eguna** otsailaren 16an.

Eskolako komunitatearen jaialdia 10:00etan: Munduko dantzak. Jarraian txokolatada. 16:30ean Erromeria **Luhartz** taldeagaz Olaburu frontoian.



>> **Santa Apolonia jaiak.** 11:30ean meza, ondoren iurretako dantzariak eta luntxa.

ZALDIBAR

» **Inauteri Eguna** otsailaren 16an. **Ikastetxeetan jaiak:** kalejira egingo dute, 10:30ean hasita, herrian zehar. **Txokolatada** izango da 11:30ean. **Play-backa** 13:00etan. Kiroldegian **Berbena eta Mozorro Lehiaketa** izango da **Bizargorri** taldeagaz.



LEHIAKETA

ABADIÑO

» **San Blas**etako Argazki Txapelketa. Gaia: San Blasak 2010. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 12ko 20:00ak. Errota eta Txanporta kultur etxeetan aurkeztu daitezke argazkiak. 1.saria: 400 euro. 2.saria: 250 euro.

BERRIZ

» **“Emakumeen Nazioarteko Eguneko II. Kartel Lehiaketa.** Gaia: sexualitatea. Lanak otsailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira Berrizko Udal Erregistroan. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean be zabalduko da lehiaketa. Kategoria horretako saria argazki kamera digital bat izango da

LITERATURA

IURRETA

» **Irakurleen Txokoa:** ‘Larrua hotz’ otsailaren 17an, 19:00etan.



» **Irakurleen Txokoa:** ‘Sostiene Pereira’ otsailaren 18an, 19:00etan.

MUSIKA

BERRIZ

» **Humphrey Cao** rumba eta rocka fusionatzen duen musika ekitaldia, otsailaren 12an 21:00etan Olakueta frontoian.



DURANGO

» **Roy Loney & Señor No + The Hi Risers (USA)** Plateruenean, hilaren 12an 22:00etan.

ELORRIO

» **Iñaki Salvador ‘Te doy una canción’** otsailaren 12an, 22:00etan Arriolan.

ERMUA

» **Folk kontzertua Korrontzi taldeagaz** otsailaren 16an 22:30ean



ZORNOTZA

» **Outsider + Kokoteko,** Zelaieta zentroan, hilaren 12an 21:00etan.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **“No es tan fácil”** otsailaren 18an 20:30ean Zugazan.



ERMUA

» **“Melissa P.”** otsailaren 18an 19:00etan eta 21:30ean Lobiano Kultur gunean.



Otsailaren 12an, 22:00etan

ROY LONEY & SEÑOR NO THE HI RISERS + DIRTY PINK LADIES

Roy Loney Flamin Groovie taldeko lider mitikoak disko berria aurkeztuko du, bere 13. diskoa da ‘Got me a hot one’. Betiko rocka dakarte bere lan berriagaz. Loney ez da bakarrik egongo, Gipuzkoako talde bat, Señor No izango du lagun. Loneyk adierazten duenez, “oso gustura nago lanagaz. Señor No lehenengo mailako taldea da, eta horrek grabaketa errazten dit”. Horrez gainera, The Hi Risers Estatu Batuetako hirukoteak energiak betetako rock &rolla eskainiko du eta Irungo The Dirty Pink Ladies-ek ‘Sunrise Orchestra’ lan berria aurkeztuko dute.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

El hombre lobo

Zuzendaria: Joe Johnston
barikua 12: 19:00/22:00

zapatarua 13: 20:00/22:30

domeka 14: 20:00/22:30

astelehena 15: 19:00/22:00

martitzena 16: 20:00

Avatar 3D

Zuzendaria: James Cameron

zapatarua 13: 16:30

domeka 14: 16:30



ELORRIO

Arriola antzokia

Teniente Corrupto

Zuzendaria: Werner Herzog

zapatarua 13: 22:30

domeka 14: 20:00

astelehena 15: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Un tipo serio

Zuzendaria: Joel Coen,

Ethan Coen

zapatarua 13: 22:30

domeka 14: 20:00

astelehena 15: 20:00



Umeendako zinema

Nico, el reno que quería volar

Zuzendaria: Michael Hegner

y Kari Juusonen

domeka 14: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 12**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Zapatarua, 13
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrío Otxoa 6 - Elorrio)
• Balenciaga/ Unamunzaga/ Sagastizabal/De Diego/ Campillo/ SanRoma/(Durango)
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 14
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jimenez (Erreka 6 - Elorrio)
Astelehena, 15
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
Martitzena, 16
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguazena, 17
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Eguena, 18
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOAK
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30
Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 1 3º BARIKUA**
Izotza botako du. Temperatura zertxobait gehiago jaitziko da, baina, oro har, ez dugu aldaketa handirik sumatuko. Elur-kota oso behean egongo da, baina ostegunean baino askoz gutxiago botako du.
- 2 2º ZAPATUA**
Asteburuan giro hotzagaz jarraituko dugu. Zerua estalita egongo da, eta ipar-ekialdeko haizeak temperatura oso baxu mantenduko du, minimo eta maximoak berdinduta. Ez dugu prezipitazioirik izango.
- 1 3º DOMEKA**
- 2 8º ASTELEHENA**
- 3 8º MARTITZENA**

Izan zu zeu kazetari
eta argazkilar
Zure auzoko jaiak direla?
Ekimen bat prestatu duzuela?
Mendira joan eta paisaia zoragarriak
ikusituzula?

argazkitek

berria

Bialdu zure argazkiak eta gure
WEBean izango dituzu ikusgai
Gura baduzu bialdu albistexoa
argazkiagaz batera



Bidali zure argazkiak: astekaria@anboto.org helbide elektronikora



anboto
komunikabideak



www.anboto.org

dimentsiotan

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Entrenatzaile berria, jokalaria berriak, sistema aldaketa... Tabirako elkar lotu beharreko pieza askogaz aurkitu zen liga hasieran. Partiduek, ordea, ez diote inori itxaroten, eta Tomas de Castroren taldeak makineria ondo kateatu barik ekin zion ligari. Apurka-apurka entrenatzaileen sistema barneratzen joan dira, eta jokalariek batak bestearen jokamoldea ikasi dute. Puzzlea osatu dutenean emaitzak berehala heldu dira. Azkeneko hiru partidua segidan irabazi dituzte, eta azken bederatzi neurketetatik zazpitan gailendu dira.

Liga hasiera eskasak ez zituen ezustean harrapatu: "Hasiera gogorra aurreikusitu genuen. Bagenekien taldeak

Osatu dute puzzlea

filosofia eta jokamolde berria bere egin arte kostatu egingo zizaitzula. Hala ere, lanean segitu dugu, eta orain emaitzak helitzen dabilta", azaldu du Tomas de Castro entrenatzaileak.

Azken hile bietako aldikada onak igoera postuan finkatu ditu durangarrak. Hala ere, ez dago fidatzerik. Tabirako laugarren dago, bederatzi garaipenekin, baina sei talde garaipen biren barruan daude; Seky.es, Laiene Zornotza, Baskonia Fundazioa, San Ignacio eta Easo.

Legarzia azkenaurreko sailkatuaren kontra ezin dute hutsik egin asteburu honetan Landako kiroldogian. Joanekoan irabazi egin zuten eta, hain zuzen ere, partidu huraxe izan zen Tabira-

Tomas de Castro:
"Bagenekien liga hasiera gogorra izango zela"

koren aldikada onari hasiera eman ziona.

Legarziak talde ona dauka, baina Boneta jokalaria beste guztien gainetik nabarmendu ohi da. Joanekoan Arkaitz Gurrutxagak ederto gelditu zuen Boneta, eta bederatzi puntu baino ez zituen egin. Bihar beste hainbeste egiten ahalegintzea egokituko zaio. ■ J.D.

24 Jon Agirrebeitiaren esperientzia

Enduro Munduko Kopako proba batean parte hartu du joan zen asteburuan. Italian bizi izan duen esperientzia "sekula ez duela ahaztuko" dio berrizko motor gidariak.

25 Presion Break goiko postuetan

Areto-futboleko Lehen Erregionalean azpimarratzeko moduko liga osatzen dabil Berrizko taldea. Abadiñoako Lagun ere goiko postuetara hurreratu da.

Agirrebeitia zazpigarren izan da Munduko Kopako proban

“Sekula ahaztuko ez dudan esperientzia izan da”, dio berriztarrak



Goizeko lasterketa 20. amaituta arratsaldeko saiorako sailkatu zen Agirrebeitia.

Jon Agirrebeitia berriztarrak Enduro Munduko Kopako proba batean parte hartu zuen, asteburuan, Italiako Luca herrian. Lan aparta osatu eta zazpigarren geratu da: “Neuk ere ez nuen itxaroten hain aurrean ibiltekerik”, aitortu du.

Goizean sailkapen lasterketa egin zuten. Guztira, 30 motor gidari sailkatuko ziren arratsaldeko zirkuiturako. Agirrebeitia- ren helburua arratsaldeko saiorako sailkatzea zen, eta lortu zuen: 20. amaitu zuen goizean.

Arratsaldeko ibilbidea “oso gogorra” zela esan digu: “Txarto hasi nintzen eta atzetik aurrera ibili nintzen”. Zirkuituari hiru buelta eman behar zizkieten, eta lasterketan segitzeko beharrezkoa zen helmugan liderrarengandik orduerdi baino gutxiago-

Unai Martin eta Ugarte irabazle trinketean

San Blas Trinkete Txapelketako finala Unai Martinek eta Ugartek irabazi zuten (40-28) Gandiaga II. aren eta Martin II.aren kontra. Ugarte izan zen lauretan onena, baina, oro har, irabazleek dotore jokatu zuten. Gandiaga II.ak eta Martin II.ak, aldiz, pilota lartxo galdu zituzten.

Promesen mailako finala Garaizabal eta Etxebarriak irabazi zuten (40-29), Alustizaren eta Aspurenren kontra. Partidu borrokatua jokatu zuten. ■J.D.

Motorista bik bakarrik amaitu zuten proba: Lampkin eta Jarvis ingelesek

“Erripa gaitz bat zegoen eta hiruk bakarrik igo genuen, neu tarteko; zaleak zoratu egin ziren”

Aramotz lasterketako ibilbidea egokitu dute

Maiatzaren 30ean korrituko den Aramotz mendi lasterketak aldaketa bat izango du ibilbidean. Mugarrekolandan ipini ohi zuten anoa-postua Marmolako harrobietara lekualdatuko dute. Aldaketa horregaz “desatsegina” den tramu bat kenduko dute, Durangalderako ikuspegiak dituen beste bategatik. Mugarrekolandatik pasatzen segituko dute korrikalariak, baina anoa-postua “toki erosoago batean” kokatuko dute, antolatzaileren esanetan.

ra pasatzea. Lehenengo itzuli bietan lortu egin zuen, baina hirugarrenean ez, eta orduantxe jaitsi zen motorretik. Hala ere, zazpigarren sailkatu zen.

Lasterketa amaitzea motorista bik bakarrik lortu zuten: proba irabazi zuen Dougie Lampkim -12 bider izana da munduko txapeldun- eta Graham Jarvis ingelesek.

Kopako hurrengo proba hilaren 20an jokatu da Ingalaterran, eta “parte hartzen, behintzat, saiatuko” dela dino Agirrebeitia.

Italian bizitakoa sekula ez egi du ahaztuko: “Ibilbidean 100 metroko erripa bat zegoen, eta Lampkim eta Jarvis-ez gainera neuk bakarrik lortu nuen goraino igotzea. Zaleak zoratu egin ziren. Une polita izan zen”. ■J.D.

Adituarentxokoa

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Posible da

Bai. Dena da posible. Lana gogor eta etsipenari uko eginda, edozer lortu daiteke. Aukerak norberaren eskuetan baditugu, are gehiago.

Horrela ulertu daiteke, gizonetzkoen lehenengo mailako B multzoan gertatzen ari dena gure taldeekin. Hurrengo bi jardunaldietan erabakiko da dena. Partidu garrantzitsuak jokatu dira.

Bietatik, Tabirakok dauka errazen. Bederatzi garaipen dituelako eta garaipen bakarra behar duelako. Zapatuan etxean hartuko du Lizarrako Promociones Legarzia. Partidu erraza izan daitekeena, amets gaizto bihurtu daiteke erlaxatuta jokatzeko bada. Azken partida, oster, Arrigorriagan, Paduraren aurka. Partidu zaila eta gogorra zerbait erabakiorra jokatzeko.

Laiene Zornotzak, zortzi garaipenekin, badirudi olatu ona hartu duela. Donostian urteko partidarik kaskarrena jokatu ondoren, Bidegintza liderra eta Lizarrako taldea jipoitu ditu etxean. Baina hamar garaipenak lortzeko eta matematikoki klasifikazioa lortzeko azken bi partiduak ere irabazi behar ditu. Zapatuan Seky-ren aurka, Gasteizen, eta azkena Baskonia ahaltsuaren aurka, etxean. Espero dugu hartu dugun olatuaren indarrak nahi dugun tokiraino eramatea. Horretarako guk ere gogor astindu beharko ditugu gure besoak.

Bai: posible da. Talde lanean datozen oztopoak denon artean gaintzeko indarra eginez lortuko dugu. Ia desioa egi bihurtzen dugun! Gure eskuetan dago, eta ez beste inorenean!

Cristina Petite Euskadiko Kross Txapelketan, etzi

Igandean, Euskadiko Kross Luzeko Txapelketa jokatu dute Zornotzan. Cristina Petite abadiñarrak zortzi bider irabazi du txapelketa hori, eta aurten ere txapela janztea du helburu. Badaki, baina, konpetentzia handia izango duela: “Ni ere apurren bat jaitsita nago, eta hainbat korrikalari sasoiandaude. Leire Medina eta Birginita Berasategui, besteak beste, aurrean ibiliko dira”.

Bederatzigarren bider irabaztea du helburu, baina arerio gogorak izango dituen jakitun

Bestalde, hilaren 20tik 21erako asteburuan Espainiako Txapelketan lehiatuko da Santutxu taldeagaz. Aron jokatu dute txapelketa. Iaz, bigarren geratu ziren Bartzelonaren atzetik. Aurten ere indartsu dabilta bartzelonakoak, baina “gu gurea egiten eta ezustekoa ematen joango gara”.

Azkenik, Europako Klubuen arteko Txapelketan zortzigarren amaitu zuen Santutxuk, Cristina Petitek ordezkatu zuen taldeak. ■J.D.

Apurka-apurka, Abadiño puntuak batzen xakean

Mailari eusteko borrokan apurka-apurka puntu baliotsuak batzen dabil Abadiño xake taldea. Joan zen asteburuan 2,5 puntu batu zituen Eibarren kontra. Emaizta horregaz seigarren kokatu dira sailkapenean 8,5 punturekin, eta gora begiratzen ipini daitezke.

Goren Mailan Larrasoloetak irabazi egin zuen, eta Zaldi Baltzak galdu. Durangarrak sailkapenaren erdian daude; elorriarrek, aldiz, geroago eta gaitzago dute mailari eustea.

Beheragoko mailetan binako berdinketa izan da emaitzarik errepikatuena. Lehenengo Erregionalean Larrasoloetak puntu bi batu zituen; beste hainbeste batu zituen Zaldi Baltzak Bigarren Erregionalean; Amaitzeko, Hirugarren Erregionalean ere emaitza bera eman zen Zaldi Baltza Dk eta Larrasoloeta Dk jokatu zuten derbian. Maila hauean aipagarria da Larrasoloeta Cren laugarren postua.

Orain sailkapenaren erdian nasai samar kokatu da Abadiño, 8,5 puntu batuta

Arerio zuzenen kontra jokatu dute Presion Break eta Abadiñok

Presion Break igoera postura igo daiteke, Abadiñoko Lagunek Saltzaileki irabazten badio



Presion Breakek 7-3 menderatu zuen Iturritxu, joan zen asteburuan. Kepa Aginako.

Erregulartasuna dohain balio-tsuenetakoa dela argudiatuta, entrenatzaileak eta enparauak zaleak dira esaten igoerak eta txapelketak zelai apaletan irabazten direla. Egia da, baina aurkari zuzenen kontrako partiduek interes berezia sortzen dute. Postu batean borroka betebetea sartuta dauden taldeek

Presion Break igoera postuan kokatu daiteke jardunaldiko emaitzak aldeko baditu

aurez aurre topo egiten dutelako. Aretu-futboleko lehen erregionalean Presion Break eta Abadiñoko Lagun hirugarrena eta laugarrena dira, hurrenez hurren. Lehenengoek Sumi Muguru bostgarren sailkatua bisitatuko dute asteburuan, eta Lagunek Saltzaileki bigarren sailkatua hartuko du Berrizko kiroldegian.

Hiru puntu garrantzitsu batzeaz gainera, batak besteari mesede egin diezaiokete eskualdeko talde biek. Izan ere, Lagunek Saltzaileki menderatzen badu, berriztarrak igoera postuan kokatu daitezke; lehenengo biak igotzen dira. Presion Breakek bere lehia aurrera ateratzen badu, berriz, abadiñarrek nahiko atzean utzi dezakete Sumi Muguru.

Sasikoa puntu bila
Gutziz bestelako egoeran dago Sasikoa Ohorezko A Mailan. Azkeneko postuan daude eta puntuak behar dituzte. Bihar

Sasikoak puntuak behar ditu Ohorezko A Mailan azkeneko postutik irteteko

Atenea Ikusnet zazpigarren sailkatuaren kantuan jokatu dute. Kanpoan batuta uzta ondoetorria izango da, baina Aitor Olivares jokalaria argi utzi gura du salbazioa etxean lortuko dela: "Gugaz borrokan dabilzanek Landako bisitatu behar dute bigarren itzulian. Etxean dago salbazioa; partidu horiek irabazi egin behar ditugu". ■ J.D.

Elizegi bigarren, Floridako zesta txapelketan

Floridako Ocala herrian Citrus torneoak jokatu zuten asteburuan, eta etxeko Pancho eta Ginorentzat izan da txapela. Adolfo Elizegi eta Aimar Master Jaiko zestalariek bigarren postua eskuratu zuten, zazpi puntu batu ondoren.

Durangarra gustura dago bigarren postuagaz, baina ordu aldaketak errendimenduan eragin ziela dio: "Berandu oheratu eta goiz esnatu behar izan

Txapelketa aspaldi ikusi bako lagunekin hartu-eman berritzeko ere baliatu zuten

genuen; hala ere, ez dut hori aitzakia moduan erabili gura". Aspaldiko lagunekin hartu-eman berritzeko ere baliatu ei zuen txapelketa: "Urteetan ikusi bako pilotariekin eta pilotari ez direnekin egon nintzen: Orbea, Benny, Azpillaga... esperientzia polita izan da". ■ J.D.

Zaldua lider ipini da segidan lau partidu irabazita

Julza Zaldua aldikada onean dabil saskibaloian. Bata bestearen atzean lau partidu irabazita lider ipini dira; Rover, Mungia, Tabirako eta Txurdinaga menderatu dituzte. Bigarren Rover taldea dago, garaipen kopuru beragaz. Averagea zaldibartarren aldekoa da: kanpoan 31 puntugatik galdu zuten, eta etxean 33gatik irabazi.

Gaur Marrazoak hartuko dute etxean. Marrazoak hirugarren dago lehenengo biengandik garaipen bira.

Tabirako, aldiz, bolada txarrean dabil. Azaroan hiru partidu segidan irabazi zituzten, baina harrezkero jokatu dituzten sei partiduetatik bost galdu egin dituzte. Etzi Roverren kontra jokatu dute. ■ J.D.

Marrazoak hirugarren sailkatuaren kontra neurtuko ditu indarrak gaur Zalduek

Ibai Zabala, lehenengo mailako txapelketan

Iñaki Otxandorenak min dauka eskuan, eta bere ordez Ibai Zabala berriztarrak jokatu du Oinatz Bengoetxeagaz Lehen Mailako Binakako Pilota Txapelketari dagokion jardunaldian gaur gauean, Urretxun. Gonzalez eta Laskurainen kontra jokatu dute. Otxandorena Ruben Beloki ordezkatzen ibili da orain arte.

Zabalari atzo jakinarazi zioten Otxandorenaren ordez jokatu duela gaurko partiduan. Oraingoan, "ostiralerako partidurako bakarrik da ordezkapena", adierazi digunez. Jardunaldi berean partidu bi ezin dituztenez jokatu, Bigarren Mailako Txapelketan, Kepa Peñagarikanok jokatu du bere ordez Arretxe II. agaz. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	
1- Real Sociedad B...	50
2- Amorebieta.....	49
3- Portugalete.....	41
4- Kulturala.....	41
5- Gemika.....	41
6- Zamudio.....	40
7- Beasain.....	39
8- Elgoibar.....	38
9- Basconia.....	37
10- Amurrio.....	36
11- Zalla.....	32
12- Arenas.....	32
13- Santurtzi.....	31
14- Leioa.....	31

15- Lagun Onak.....	30
16- Eibar.....	28
17- Aretxabaleta.....	27
18- Laudio.....	25
19- Retuerto.....	22
20- Salvatierra.....	9

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	
1- Bidegintza.....	12 (+55)
2- Padura.....	10 (+27)
3- Seky.es.....	9 (+18)
4- Tabirako.....	9 (+39)
5- Zornotza.....	8 (+81)
6- Baskonia Fund.....	8 (+69)
7- San Ignacio.....	7 (-58)
8- Easo.....	7 (+21)
9- Bide Bide.....	5 (-130)
10- Legarzia.....	5 (-122)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Bera Bera	17 (+311)
2- Gemika	14 (+240)
3- Ardoi	14 (+364)
4- Cafés Aitona	12 (+293)
5- Las Gaunas	12 (+20)
6- Elexalde	10 (-1)
7- Deusto-Loiola	9 (+34)
8- Tabirako	9 (+115)
9- Obenasa	9 (-68)
10- Arabako EHU	8 (+4)
11- Abaroa	7 (+32)
12- Atletico SN	7 (-58)
13- Getxo	7 (-108)
14- Artieda	3 (-206)
15- San Ignacio	2 (-367)
16- Irlandesas	0 (-421)



Durangoko Kulturalak 37 gol sartu eta 27 jaso ditu aurtengo denboraldian

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Ugeraga

Zapatuan, 17:30ean,

Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Elorrio - Artibai

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Zorrontzako

Zapatuan, 18:00etan,

Arripausuetan

Extremeño - Berriz B

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

(emakumeak)

Iurretako -

Deustuko neskek

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

LEHEN ERREGIONALA

Elorrioko B -

Mazusberri

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko udal kiroldegian

Abadiñoko Lagun -

Saltzaileak

Zapatuan, 17:00etan,

Berrizburu kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Kurutziaga B -

Dantxari

Zapatuan, 18:00etan,

Landako kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Kurutziaga -

Goiztiri

Zapatuan, 16:30ean,

Landako kiroldegian

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

(emakumeak)

Tabirako -

Bera Bera

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Julza Zaldua -

Marrazoak

Barikuan, 20:15ean,

Zaldibarko kiroldegian

Anbotopeko - Muskiz

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

BIGARREN ERREGIONALA

Julza Zaldua -

Barakaldo

Zapatuan, 16:30ean,

Zaldibarko kiroldegian

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Atxondoko Gaztetxean ipinitako berogailuak zerrautsa du erregai

Atxondoko Udalak 12.000 euro gastatu ditu galdara berrian; EVEk %50eko diru-laguntza ematen du

Berotze-sistema honegaz ziklo itxia lortzen da; ez da airera kutsadura berririk botatzen

Biomasa galdara automatikoa eta zoru-erradiatzaile sistema erabiltzen dute berotzeko; beroa lurzorutik gora igotzen da

Atxondoko Gaztetxea berrizatu zutenean berogailu sistema berria ipini zuten martxan, biomasa galdara eta zoru-erradiatzaile sistema erabiltzen dute berotzeko. Hau da, hodiak lurzoru azpian daude, eta ur beroa bertatik pasatzen da. Beraz, Gaztetxean ez dago erradiadorerik. Zoru-erradiatzaile sistemagaz beroa lurzorutik gora igotzen da eta beroa gehiago aprobetxatzen da; gelan 18 gradu badaude ere sentsazio termikoa 20 gradukoa litzateke. Ondorioz, energia aurrezten da.

Biomasa galdara

Gainera, biomasaz funtzionatzen duen galdara daukate; hau da, zerrautsa da bere erregaia eta, gainera, sistema guztiz automatikoa da. Geroago eta gehiago, zuragaz lan egiten duten lante-

gietan zura moztean sortzen den zerrautsa aprobetxatu egiten da. Zerrauts makina batean sartu eta konprimitu egiten da bolatxo batzuk sortu arte; horiei "pellet" deitzen zaie.

Galdarak duen depositu handi batean pelletak sartu, galdarak hartu eta apurka-apurka erre egiten ditu. Horrela, ura berotu egiten du berotze-sistema osorako. Sistema horregaz emisioak zero dira, ziklo itxia edukitzea lortzen delako. Izan ere, zura erretzean sortzen diren kutsatzaileak gutxiago dira, beste gas edo gasoleo galdarekin konparatuz. Biomasa galdarak sortzen duen kutsadura gero zuhaitzek xurgatuko dute fotosintesiaren bitartez. Eta zuhaitz horiek biharko egunean erregai izango dira. Beraz, airera ez da kutsadura berririk botatzen.


Inbertsioa

Atxondoko Udalak 12.000 euro gastatu ditu Gaztetxean biomasako galdara ipintzeko, baina EVEk (energiaren euskal erakundeak) energia berriztagarriak erabiltzean %50eko diru-laguntza ematen du. Gainera zerrautsa beste erregaiekin konparatuta, askoz merkeagoa da, beraz, "arin amortizatzen duzu egindako inbertsioa", adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak: "Sistema horrek onura ekonomikoak dauzka, ingurugiroa kontutan hartzen du, eroso da mantentze-lanak oso sinpleak direlako eta ematen duen beroa oso atsegina da". David Cobosek adierazi duenez, energia berriztagarriak erabiliz "erakutsi gura dugu alternatiba badagoela; geroago eta eskuragarriagoa da, gainera".

LORENZO CUBERO

- Eraikuntzak eta erreformak
- Igeltserotza orokorra
- Gremioen koordinazioa

**Ekohareatzaile
zerbitzua.**



Hare ekologiko bidezko garbiketa berezia dispertsiorik gabe, zur zaharrear, harri landuan, hargin-lanetan, grafittietan eta fatxadatan oro har.



IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu

IRAKASKUNTZA

- Klaseak hartu
- Klaseak eman

MOTORRA

- Salgai
- Erosi

LOKALAK



- Errentan eman
- Errentan hartu

ANIMALIAK

- Salgai
- Erosi

BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereizitua eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Erreferentzia: 128. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Psikologo pedagogikoa behar da erakunde bateko formakuntza beharrezko diagnostikoa egiteko. Beharrezkoa: gutxienez urtebeteko esperientzia izatea formakuntza planak egiten eta formakuntza beharrezkoen analisia egiten, Psikologia, Psikopedagogia, Pedagogia, Soziologia... ikasketak izatea eta Durangaldean bizitzea. Baloratuko da: Euskara jakitea. Erreferentzia: 948. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Mallabia. Merkataritzako agentea behar da bezeroei eguneko bisitak egin, produktuak saldu, bezero berriak lortu eta harremanetarako. Derrigorra da esperientzia izatea komertzial moduan, 25-40 adin tartekoa izatea, gidabaimena izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 997. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Zerbitzaria behar da jateke baterako barra eta mahaiak zerbitzatzeko. Derrigorra da pertsona azkarra eta zuhurra izatea, zerbitzari lanetan esperientzia izatea, janari-erabiltzaile txartela izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 1.010. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Berriz. Sukaldaria behar da menu, karta, plater konbinatuak, ogitartekoak... prestatzeko. Derrigorra sukaldari ikasketak izatea, esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 1.016. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazioa eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malguia izatea eta Durangaldean bizitzea.

Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAINZAK

Neska euskalduna Durangaldean lan egiteko prest; umeak zaintzen, denda... Tel.: 649 274 543 (Nagore)

Elorrioko neska euskaldun eta arduratsua, goizetan 11:00etara bitartean umeak eskolara eraman edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Tel.: 645 723 401

Emakume nagusia pertsona edade-tuak zaintzeko prest Tel.: 699 745 723 (Ines)

Haur Hezkuntza ikasten ari den 20 urteko Elorrioko neska euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 615 715 878

Neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko eta beraien ikasketekin laguntzeko eskaintzen da. Tel.: 676 259 100

Haur Hezkuntza ikasten ari den neska euskaldun gaztea, umeak zaintzeko prest (kotxea daukat) Tel.: 626 196 885

Emakume arduratsua orduka lan egiteko prest dago: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko garbitzeko eta antzekoetarako. Tel.: 670 674 641

Neska euskalduna edozein lan egiteko prest, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko, adibidez. Edozein ordutegitan. esperientzia handikoa. Tel.: 607 086 090 (Ane)

Mutil bat asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 678 313 503

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Pisu salgai Andra Marin. 72 m2. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua, 40 m2ko terrazarekin. 240.000 euro. Tel.: 696 255 083 (15:30etik aurrera)

Elorrio. Pisu ederra salgai. Tel.: 639 020 581

Zaldibar. Pisu salgai 75m2. 3 gela, egongela eta ganbara. Prezioa: 170.000 euro Tel.: 655 739 792

Otxandio. Pisu salgai. Ikuspegi zoragarria Anboto aldera. 90m2

erabilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua eta balkoia. Tasatutako prezioan. Tel.: 675 905 227

Mallabia. Baserria salgai toki polit batean. Tel.: 655 702 647

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. Tel.: 639 020 581

Durango. Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzia. Tel.: 655 709 659

Durango. Pisu salgai erdialdean. 80 m2: Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua. 12 urte ditu. Tel.: 656 711 625 (Mario)

Elorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreinatzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarrea. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birezako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisu salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

ERRENTAN EMAN

Durango. Logela bat alokatzen da Alde Zaharrean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 607 086 090 (Ane)

KONPARTITU

Abadiño. Pisu konpartitzeko pertsona behar da. Tel.: 653 017 224

Durango. Zonalde onean kokatutako pisua osotzeko pertsona behar da. Tel.: 695 780 944

Durango. Konpartitzeko pisu bila nabil Durango inguruan. Tel.: 691 354 031

MOTORRA

SALGAI

Ford Escort Turbo Diesel salgai. Balazta berriekin eta martxan ipintzeko berogailu berriekin. Amortiguadoreak ere berriak. IAT pasatu berri. 154.000 km. 2.100

eurotan. Erabilgarri dago, egoera onean. Tel.: 94 621 82 57

Nissan Micra salgai. Egoera onean eta oso merke: 950 euro. Tel.: 610 415 511

Peugeot 307 1.6 salgai. Gasolina. 2005eko azarokoa, 36.000 km-rekin. IAT 2011ra arte. Klimatizagailuarekin eta oso egoera onean. Garajejan gordetako. 8.000 euro. Tel.: 677 333 167 (Iratxe)

Land Rover Defender 2.5 TD salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Enbrage berriarekin. Egoera onean. 9.500 euro, negoziagarri. Tel.: 696 781 189

Renault Clio 1.9 D salgai. 2000. urtekoa. 170.000 km. Kolore urdinekoa. Distribuzioa eginda. Gurpil berriekin. Egoera onean. 2.500 euro. Tel.: 696 781 189

LOKALAK

SALGAI

Durango. Garaje partzela salgai Correos-en ondoan. Tel.: 606 742 164

Ile-apaindegia sagai. 19 m2 ditu. Tel.: 626 864 971

Durango. Garaje itxia salgai. Alde zaharretik gertu. Prezio onean. Tel.: 665 729 936

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje bi alokagai Goieta kalean. Tel.: 657 793 993

Durango. Haizetarako garajea alokatzen dut Ibaizabal auzoan. Tel.: 94 681 89 47 edo 636 046 318

Durango. Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m2 ditu, eta jantzia dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean. Tel.: 656 780 215

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

IRAKASKUNTZA

EMAN

Elorrio. Ekonomian lizentziaduna eta 8 urteko esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrik ematen ditu: DBH, Batxilergoa, LH... Tel.: 616 802 932 (Oihane)

HARTU

Matematika irakaslea behar da etxean klase partikularrik emateko. 3. DBH. Tel.: 605 767 258

ANIMALIAK

SALGAI

5 urteko aker ederra salgai Tel.: 627 637 536

Txakurkumeak salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (Negoziagarri). Tel.: 677 850 585

Etxeko oilaskoak saltzen dira. 2-3 kilokoak. Zuriak 5 euro kilo, eta gorriak 6. Tel.: 655 998 402

LANA

ESKAERAK

Pertsona euskaldun, arduratsua eta jator baten bila gabiltza hiru eta lau urteko bi ume zaintzeko Durangon, arratsaldeko 16:30etik ordu betez, astelehenera ostegunera. Interesaturata baldin bazaudete deitu. Tel.: 655 742 241

Durangaldeko denda batean lan egiteko saltzailea behar da. Lanaldi osoan eta berehala hasteko. Interesaturak bidali curriculuma helbide honetara: curriculum.selek@hotmail.com

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da Durangon. Tel.: 650.847.466

Matianen tabernaria behar da jornada erdirako. Esperientzia badauka, hobe. Tel.: 94 620 37 62

Osasun arloko produktuen banaketan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Beharrezkoa da ekimen eta komunikazio gaitasuna izatea eta gida-baimena izatea. Baloratuko da: osasun arloko formazioa, antzeko lanetan esperientzia eta trebakuntza arloko esperientzia. Bidali CVak urtarrilaren 22a baino lehen hona: info.ksegur@gmail.com

Zornotza. Klinikako teknikari laguntzailea behar da nagusien erresidentzia batean asteburuetan lan egiteko. Derrigorra da formazioa edo esperientzia izatea eta kotxe propioa izatea. Erreferentzia: 67. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroak lortu eta harremanetarako. Derrigorra da esperientzia izatea komertzial moduan eta Durangaldean bizitzea.



TOPATU

Katua topatu dogu Elorrión, zuria eta marroi argi kolorekoa. Zurea bada, deitu. Tel.: 615 764 273

SALGAI

CDak salgai ditut 70eko hamarkada-tik 2000. urtera artekoak: rocka, popa, bluesa, reggea, eta abar. CD bat: 2 eurotan; Bost CD edo gehiago: euro bat bakoitza. Tel.: 606 266 244 Luisma.

Ume txiki bat eramateko mendiko motxila bat saltzen da, Berria. Tel: 699 000 900

Lur sail eraikigarria salgai Urdaibain Ereño inguruan 3.000 metro koadro

inguru. Tel.: 619 027 538 (19:00etatik aurrera)

5.000 metro koadroko lur saila salgai. Zaldibarren Gazaga auzoan. Tel.: 639 772 436

Ume txiki batendako bizikleta salgai. 3 urteko ume batentzako gutxi gora behera. 14 pulgadako, 4 erruberaduna, kolore gorrikoa. 40euro. Tel.: 615 79 29 71

Egongelarako altzaria salgai. Egoera oso onean. Luzera 3,34 m, altuera 2,20 m eta zabalera 40 zm. Tel.: 685 769 503

Garbigailua salgai. Berria da. Berme barruan. Erdi prezioan. Tel.: 695 728 383

Akazia taketak saltzen dira. Neurri guztietakoak eta eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Tel.: 619 088 233

Wii kotsola berria salgai. Wii Sports joko eta bigarren mandoa opari. 160 euro. Tel.: 686 425 295

Sailfish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178zm, 68-78 Kg). Tel.: 665 714 783

EROSI

lurreta. Landa bat erosi edo errentan hartzeko prest nago. Tel.: 626 156 817

Kotxerako umeen segurtasunerako aukia (1,2,3 taldekoa) eta jaioberrientzako moisesa erosiko nituzke. Tel.: 650 573 607

Bikiak paseatzeko aukitxoa erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Ingelese berba egiteko jendearen bila nabil. Tel.: 655 722 296

Indiara joateko lagun baten bila nabil. Apiril inguruan. Tel.: 695 701 172

Gizon bat emakume bila dabil, 42 urte ditut. E-mail: virgicre@gmail.com

Biodantza ikastaroa eskaintzen dut barikuetan Elorrioko Lurdes ikastetxean, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko: Tel.: 626 661 292 (Mentxu)

Txakur portaeran aditua. Txakurrari laguntzeko bide onena. Turid Rugasen eskolako eta PDTE Europako elkarteko kidea. Tel.: 649 402 296 edo 649 402 290

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurlaritzan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Erretentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Askatasun Etorbidea: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- Askatasun Etorbidea: Halla, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Astola bidea: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Ermodo: Halla, sukalde-jangela, egongela, 4 logela eta 2 komun. 2 terraza (bat oso handia).
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
- Gasteiz bidea: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Intxaurre: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trasteleku.
- Iparragirre: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 3 logela eta komuna. 2 balkoi.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trasteleku.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta).
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+ BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+ BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+ BEZ
- Tabira: Logela bakarreko apartamentuak. Ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Atxondo: Unifamiliarra salgai. 4000 m2-ko lursaila.
- Abadiño: Bifamiliarrak: 250 m2. 400 m2-ko lursaila.
- Durango: Adosatua salgai. 250 m2. 60 m2-ko lursaila.
- Elorri: Adosatua salgai. 240 m2. Ortu eta lorategia.
- Durangaldea: Txaletak eta baserriak zonalde ezberdinetan salgai edo alokairuan.
- Durango: Garajeak eta garaje itxiak salgai edo alokairuan. Zonalde ezberdinetan.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzeko sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Antso Eztegi: 97 m2. 3 logela. Ganbara. Berriztuta.
- San Franzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi.
- Astepe: 3 logela. Garajea eta trasteleku. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz beriztuta.
- Mendizabal: 108 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta ganbara.

ETXETXO
C. INMOBILIARIA
Bilgintza, 1. planta F. J. de Zumarraga kalea
Tel.: 94 681 40 48 • DURANGO • etxetxo@hotmail.com

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin. Guztiz jantziak. 138.000 €-tik aurrera.
- Tabira: Berriak. Berehalako banaketa. 192.000 €.
- lurreta: Maspe: ERAIKUNTZA BERRIA. 2, 3, 4, eta logela bakarrekoak.
- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Fray Juan de Zumarraga: Berria. 60 m2. Ganbara. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea- Oñiturri: 77 m2. 2 logela eta egongela. Ganbara.
- Durango: Bizitzeko sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300 € (26 mill.).
- Durango: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailua. Terraza. Trasteleku. 169.950 €.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. Eraikuntza berria. Ganbara eta garajea.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Ganbara eta garajea. 315.000 €.
- Montebideo: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta 2 garaje, bata itxia.
- Erretentxu: 85 m2. 3 logela. Ganbara.
- Plateruen Plaza: 75 m2. 2 logela. Trasteleku eta garajea. Terrazarekin.
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000 €
- San Fausto: 2. solairua. 143.000 €.
- Madalena: 90 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea: 3 logela eta 2 komun. Ganbara. Terraza. 279.500 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 306.500 € (51 mill.)
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Astxiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Pinondon (Tabira): 3 logela eta 3 komun. 2 terraza.
- Tabira / Arriluzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzeko sartzeko moduan.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Durango: Txalata. Estreinatzeko. Lorategiarekin.

BISITATU GAITZAZU BULEGO BERRIAN, SAIBIGAIN 1, (Fray Juan de Zumarraga kaletik sarrera).

Amboto
San Agustínakle, 4 - 1 Esk. DURANGO
TE: 94 681 35 62. email: amboto@eskakal.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 178.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 € hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- San Ignazio: 3 logela, sukaldea, jangela, despentsa, egongela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Durango: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta 2 komun. Garajea aukeran.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trasteleku eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztuta berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- San Fausto: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurre: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, eskegitokia eta trasteleku.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA


- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trasteleku. Estreinatzeko.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Ziba	▼	Saharako	▼	Ezten
	Moduz	▶	Pl., hestebe- te mota	▼	▼
	(Infin.) Bahitu	▶			
	Erabiltzen ari da	▶			
Ez dute federik	▼	AEBetako dirua	▶	▼	
Hobendun		* IRUDIAN			
	▶	▼			
Daroa	▶				Arren eta arren esaka
Denbora					
	▶		Iratzea, garoa	▶	▼
			Txingurri, xinaurri		
Oletako mailua	▶		▼		Röntgen
Erraz sa- mintzen da					Izan- dakoak
	▶				▼
Errota, eihera	▶			Helioa	▶
Gipuzkoan, dut				Akabatu	
	▶		Alemaniko ibaia	▶	▼
			Europar Batasuna		
Pl., basapiz- tia mota	▶	▼			
Ukabil kolpeka					
	▶				

SUDOKU >

Zelan jokatu: Osatu taula (bederatzi koadrotan banatua), 81 lauki dituen (bederatzi lerro eta zutabetan jarriak), gela hutsak 1-9 arteko zenbakiekin betez, lerro, zutabe edo koadro bakotxean zenbakirik ez errepikatze moduan.

1

			2	3	9	5
6	9		4	7		
		7	8	1		
8	4			1	7	6
	2					
		7	3	2	1	
	8			5		9
2		5	7	3		
9	1	5	8	2	4	

2

		6				9
						5
	4	7			3	
9			4		8	
			1	3		6
8	5					4
	8		9	1		
	1			6	2	8
2		8		3		

ERANTZUNAK >

V	K	L	I	B	V	K	U
K	V	I	R	E	Z	V	•
N	I	H	R	•	L	E	D
E	H	•	U	L	O	B	•
R	O	K	N	I	M	V	S
R	•	V	A	B	V	A	•
V	R	I	•	V	T	E	B
•	V	A	V	A	R	D	•
I	R	I	A	T	A	R	B
R	I	A	R	O	L	D	•
I	H	V	A	•			
Z	V	A	I	G			
•	S	•	Z	•			

1

1	6	3	5	7	4	8	9	2	7
4	8	2	7	9	3	1	6	5	8
4	9	1	6	2	3	8	7	5	4
2	1	4	7	1	4	2	8	3	5
6	5	6	9	4	7	3	2	1	8
3	8	7	3	8	1	5	4	2	9
8	3	8	1	5	4	7	2	9	6
1	5	4	7	2	9	6	3	8	5
3	7	2	6	5	8	4	1	9	6

2

6	1	5	8	3	2	9	4	7
4	2	6	9	5	7	8	3	1
7	3	8	6	1	4	5	2	9
5	6	9	4	7	3	2	1	8
1	7	2	9	6	8	4	5	3
3	8	4	2	5	1	9	7	6
2	5	3	7	8	9	1	6	4
6	9	1	3	4	5	7	8	2
8	4	7	1	2	6	3	9	5

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Momentu onean zaude, baina zu ez zara konturatzen. Hobe zenuke daukazuagaz gozatuko bazenu, beti kexatzen ibili beharrean.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Zuri ez zaizu zaren modukoa agertzea gustatzen, lotsati samarra zara-eta. Asteburu honetan daukazu mozorrotzeko aukera!

Sagitaris
azaroak 24 - abenduak 23
Bikoteagaz ez zaude aldikadarik onenean, baina zuk zure aldetik ere jarri behar duzu egoera aldatzeko. Besteak ezin du dena egin.

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Besteen arreata deitzea gustoko duzu, eta normalean nahi duzuna lortzen duzu, baina horrela ez bada ez tristetu.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Kilora egiteko tartea astero hartzen duzu, hala ere, badira aste batzuk lana dela-eta ezin izan duzula. Orain asteburua daukazu aurretik!

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Lan asko egin duzu aste hauetan, eta nekatuta zaude. Asteburua daukazu aurretik, gustuko planen bat egin eta deskonektatu!

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Lagun artean egotea da gehien gustatzen zaizuna, eta beti zaude planak antolatzen. Lagunek eskertzen dizute zure energia.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Ezin geldirik geratu. Alde batetik bestera zabilta, eta etxekoek ez zaituzte ikusi ere egiten. Eurentzat tartea hartu beharko zenuke!

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Lagunekin egoteko tarterik ere ez duzu izan, eta baduzu kontu kontari ibiltzeko gogoia, gauza asko daukazu-eta kontatzeko.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Nerbioak dantzan daukazu, eta ingurukoak berdintzen dira zu ikustean. Bitzta beste era batean hartu beharko zenuke, lasaiago.

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Zu bai zu tematia, horrela jarraituz gero lortuko duzu bai zure helburua. Energia guztia jartzen zabilta, eta laster ikusiko duzu emaitza.

Piscis
otsailak 19 - marxoak 20
Astebururako mozorroa ezin aukeratu? Probatu duzun lehenengoa hartu, kalera atera eta ondo pasatu!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Irati Ereño Arrizabalagak
bihar 5 urte beteko ditu. Etxean txokolatada eder bat prestatuko du denontzat, bere ahizpa eta gurasoen laguntzaz. Ondo pasatu!



Emilio, aurten ez zait ahaztu. Zorionak! Badakit martitzenean izan zela eguna, baina espero dut asteburu honetan, gutxienez, kafe bat hartzera gonbidatzea.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia ematea.

Zorionak **Haizeari**. Aste honetan zotz egin dugun tarta zeuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezu gure lurretako bulegoan.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LLODIO ABADIÑO



Solitario zoragarria landuriko diamante distiratsuarekin

Lehen: 2.187,00 €

Orain: 113,00 €

Zuk sinesten duzu?.....Guk ere ez

Orain benetako harribitxiak aurkezten dizkizugu

BAUTISTA BEHERAPENAK

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00



Aitor Aurrekoetxea
EHUko irakaslea

"Ingalaterrako barazkiak ditut ortuan, kuriositatea pizteko"

Arantzazuko Artzain Eskolan laguntzaile hasiko da Paul Attard, ingeles eta nekazaritza irakaslea

Nekazari eskolako irakaslea eta ingeles irakaslea izana da Paul Attard. Jubilatatu berri, joan zen abuztuan Ingalaterra utzi eta familiagaz Sabina emaztearen sorterrira etorri zen bizitzera, Elorriora. Arantzazuko artzain eskolagaz hartu-emonetan dabil orain. Euskal kultura asko interesatzen zaio, eta AEKn hasi da euskara ikasten.

Joan den astean Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan egon zara Arantzazuko artzain eskolagaz. Orain dela hilabete egin genuen berba eurekin, eta topaketa horietara gonbidatu ninduten. Geroago joan nintzen, gaixotu egin nintzelako. Hazparden hasi, eta gero Nafarroan zehar ibilbide bat egin genuen. Oñatiko ikasle eta irakasleak Frantziako batzuekin elkartu ziren, eta lehenagoko eta oraingo artzainen bizimoduak konparatu genituen. Gazta egiten duten hainbat lekutara joan ginen. Oñatiko artzain eskolako ikasle ohiak ere bisitatu genituen. Eskolatik laguntza eskatu didate ikasleei ardien ilea ebakitzen erakusteko.

Aldea egongo da Ingalaterrako eta hemengo artzaintzaren artean. Ingalaterran esne ardiak gutxi dira, okelarako dira gehienak. Hemen go artzainak esnearen prezio baxuaz kezkatzen dira, baina niretzako ez da hain diru gutxi, Ingalaterran okelatik bizi garelarako bakarrik, eta bildots handiak saltzen ditugulako. Konparazioa egin ez gero, hemengo artzainek gehitxoago irabazten dute.

Zelan hasi zinen artzain lanetan? Nekazari izateko ikasketak egin nituen, eta 1978tik 1982ra izan nintzen artzain. Gogoan daukat 1981 eta 82 arteko negu txarra. Abe-

letzeko zuzendariordeak bakarrik utzi ninduen, kumea egiteko zeuden 900 ardiren kargu. Negu hartan astebete inkomunitatuta egon ginen. Elurra txabola barruetan sartu zen. Kumea izan aurretik ardiak txabola horietako batera eramane behar genituen, eta bidean bost galdu genituen.

Nekazaritza eskolan hasi zinen gero, klaseak ematen.

Ingalaterran konderri bakoitzean nekazaritza eskola bat dago, eta hiru konderritan jardun dut eskolak ematen; azkena Northamptonen izan da. Bertan hamar urtean egon gara. Eskolak 500 hektareako etxaldea zeukan, bertan praktikak egiteko.

Zelan ezagutu zenuen Sabina?

1972an Sabina Eskoziara joan zen ingeles ikastera, eta ni ere han nabilen. Interpretetik ikasketak egin nituen, nekazaritza ikasi aurretik. Atzerritarrei ingeles erakusteko masterra egin nuen Manchesterren, eta Iranera joan behar nuen klaseak ematera. Hara joan aurretik oporrak pasatu nituen Eskozian, eta han ezagutu nuen Sabina. Bata besteari kartak bidaltzen hasi eta elkarrekin amaitu genituen. Elorrioren ezkondu ginen, Berrion.

Zer moduz Iranen? Oso ondo. Hango kultura asko gustatzen zait.

Mashaden egon nintzen, Afganistanetik gertu. Oso erlijiosoa da hiri hori, eta lagun asko egin nituen. Jendea oso abegikorra eta sinpatikoa da. Politikoei nahasten dute dena. Askok interesatzen zait Islama; mezikak oso politak eta xumeak dira. Hemengo elizak ez zaizkit batere gustatzen. Elorrikoa, adibidez, oso kargatuta dago.

Farsi hizkuntza ere asko gustatzen zait. Ikasi nuen, eta euskara baino askoz erra-

zagoa da! Eskumatik ezkerera idazten dute, baina nahiko erraza da.

Euskara gaitzagoa da?

Bai. Ez dira berbak bakarrik entzun behar, esaldi osoa berbarik berba entzun behar da. Askok pentsatu behar da. Baina ez zait ardura akatsak egitea, bestela ez dut eta inoiz berba egingo.



Jubilatuta, Euskal Herrian... Zelan bizi zara?

Ortua daukat, eta Ingalaterrako barazkiak jarri ditut, auzokoen kuriositatea pizteko. Hemen kompetentzia handia dago ortuak dituztenen artean. Azenarioaren antzeko barazki bat ipiniko dut, txiribia. Ortuaz aparte, bizikleta bat egin dute nire neurriera, eta desiatzen nago bizikleta hartu eta hor zehar ibiltzeko.

Paul Attard

Ingalaterrako da, Lincolnekoa jaiotzez

Abuztutik Elorrioren bizi da. AEKn euskara ikasten dabil

Camus

Duela 50 urte auto istripu batean hil zen Albert Camus frantziar idazle errepikaezina. Camus, idazle izateaz gain, pentsalari ospetsua ere izan zela esan genezake, eta bere garaikide askorekin querelle edo polemika handiak izan zituela; bai Malrauxekin bai J. P. Sartrearekin. Seguru enik azkeneko honekin izandako desadostasunek eragin handia izango zuten Camusen ibilbide literario eta politikoan. Bi autore horien arteko desakordio xeble bat aipatzearen, Aljeriako gudaren ingurukoa aipatuko nuke; bertan, zalantza barik, jarrera uztarrezinak baitzizuten.

Estatu frantsesean momentu honetan ematen ari den eztabaida identitarioaren erdian, Sarkozyk Camusen figura bereganatu gura du, eta horretarako proposatu du, hain zuzen ere, Camusen aztarnak Panteoira eramatea. Frantseskeria honen bidez, Sarkozyk, 68ko maiatzaren izpirituaren kontra jo gura du, pentsatzen duelako gauegun Camus bizi balitz, zalantza barik, Maiatzeko Iraultza horretako balioen kontra jokatu lukeela. Jakina, XXI garren mendean ere Hexagonoan ematen ari den "zer den frantsesa izatea" izeneko eztabaidan, Sarkozyk Camusen ikurra bereganatuz, puntuak irabazi nahi ditu, eskubide zibilak murriztearen aldeko politika horrekin aurrera jarraitzeko.

Zorionez, frantziar kopuru handi batek pentsatzen du, etikaren paradigma kontsidera daitekeen *Gizon errebeldea* liburua idatzi zuena hemen balitz, dezentziagatik besterik ez bada ere, ez liokeela Sarkozyri utziko horrelako manipulazio maltzurrik egiten; duda barik, Sarkozyk Camus aurrez aurre izango lukeela.

katerin
ardoak
ñaki
uribe



- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak
- Delikatessena
- Ardoteka

kurutziaaga 40

48200 DURANGO

T/F 946200427

saltsan.com